

## Xabier Olano **vs** Markel Olano

EKONOMIA, ZERGAK, HONDAKINAK, BIDEGI, EUSKARA,  
BERDINTASUNA, KUTXABANK, ERABAKI ESKUBIDEA

# Bi Gipuzkoa





2. argitaraldia  
martxan

# BIZI BARAT ZEA

garaian garaikoa garaiz.

Jakoba Errekondo

Zure baratzea sortzeko, moldatzeko eta eusteko behar duzun liburua  
**ARGI**Aren eskutik

Liburuaren aurrerapena ikusgai  
[www.argia.eus/baratz-ze-lagina](http://www.argia.eus/baratz-ze-lagina)  
helbidean



Informazio gehiago:

[www.argia.eus/bizi-baratz-ze](http://www.argia.eus/bizi-baratz-ze)

@bizibaratzea

23 €

19,50 €

harpideentzat

184 orrialde (21,5x25 cm)

**Eskaerak:**

943 371 545

[www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda)

[denda@argia.eus](mailto:denda@argia.eus)

argia

antza  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA





Azaleko argazkia:  
DANI BLANCO  
Azala: ANTZA  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iriztiak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Añña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loarte. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekoa, 41 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundua



## Gipuzkoako Foru Aldundia

## NON ZER

2015eko maiatzaren 17a, 2.461. zenbakia

### ASTEKO GAIA

**KULTURANIZTASUNA** Herri koloretsuen balio erantsia.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 4

### PERTSONAIA

**ALDA FACIO:** «Feminismoak bizitza salbatu dit».

SUSTRAI COLINA / 9

### GAIK

**KITZIKAN** Sexua askatasunez bizitzeko mugimendu politikoa.

ONINTZA IRURETA AZKUNE / 14

### IRITZIAREN LEIHOA

**HOMOFOTIAK EZ NAU HARRITZEN** JUNE FERNÁNDEZ / 16  
**ERABAKITZEKO ESKUBIDEA & AUTODETERMINAZIOA**

AINHOA LARRAÑAGA / 18

**FAKE** ROSA MARIA MARTÍN SABARÍS / 19

**GORA PRO NOBIS** ASISKO URMENTA / 17

**TXANDAN** Midas. EDU ZELAIETA / 18

**BERTSO BERRIAK** Ikusten ez denaz.

ONINTZA ENBEITA MAGUREGI / 20

### ERDIKO KAIERA

**MAITE GARBAYO:** «Errealitate sozio-politikoak auzitan jartzeko arte-ekintza pribilegiozko tokia da».

DANELE SARRIUGARTE MOCHALES / 21

**PETER FINK** Zestoako Osinbeltz berreskuratzeko artea.

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 24

**LITERATURA** AMAIA ALVAREZ URÍA / 26

**MUSIKA** JOXI UBEDA / 27

**DENBORA-PASAK** ANA ZAMBRANO / 28

**ALEA** Intimitatearen hizkera politikoa.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 29

**IHESI BEASAIN (GIPUZKOA)** Igartzia Monumentu Multzoa, heritik eta herriarentzat. AITOR KALTZAKORTA / 30

**ZIENTZIA** JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 32

**DENBORAREN MAKINA** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 33

**LANDAREAK** JAKOBA ERREKONDO / 34

● BIZI BARATZEA, EMAN ETA HARTU / 35

### TERMOMETROA

**GOENKALE** Euskarazko fikzioaren basamortuko oasia

MARIJO DEOGRACIAS / 36

**ETXEBIZITZAREN LEGEA** Mamu xenofoboak astintzen.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 41

**UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2015** Markel Olano eta

Xabier Olano, oraingoz berdinketa. XABIER LETONA / 44

**EUSKARA ALBISTEAK** ONINTZA IRURETA AZKUNE / 40

**EKONOMIAREN TALAIA** JUAN MARI ARREGI / 40

**NET HURBIL** «Utzi erregeiak lurpean», beranduegi izan baino lehen. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 42

**MALTZAGATIK** XABIER LETONA / 50

# Herri koloretsuen balio erantsia

Hiru herri, hiru eredu. Lasarte-Oria, Getxo eta Barañainera jo dugu, kultureniztasuna kudeatzeko martxan dituzten proiektuak eta emandako fruituak ezagutzeko asmoz. Hezkuntza funtsezkoa dela jakitun, Gasteizko eskolaren esperientzia ere kontatu digu Amelia Barquín irakasle eta gurasoak.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

18.000 BIZTANLE ditu Lasarte-Oriak eta herritik kanpo jaiotako lagun gehien dituen Gipuzkoako herria da. Bi olaturen emaitza da batez ere: 60-70eko hamarkadetan industriak Espainia aldetik erakarrirakoak batetik (hiru fabrika handi zituen herriak) eta 2000. urtearen bueltan Nikaragua ingurutik gerturatutakoak bestetik. Herritik kanpo jaiotakoak dira bizilagunen %44, eta argi du alkateak: “Lasarte-Orian 70 jatorritako jendea bizi da, baina jatorria ez da irizpide, denak gara lasartear eta harro gaude aniztasun horretaz”.

Diagnostikoa egitea izan zen lehen urratsa: Aztiker ikergunearen laguntzaz, 2011n azterketa kuantitatiboa burutu zuten eta 2012an kualitatiboa, aniztasunaz eta elkarbizitzaz herrian zegoen pertzepzioa neurtzeko. Batzuen eta besteen artean indiferentzia nagusi zela ikusi zuten, elkarren artean ez zegoela harremanik eta komunitate itxietan bizi zirela. Komunitate itxietatik irekietara igarotzeko, elkar ezagutza sustatu behar zela ondorioztatu eta herriko leloa aldatzetik hasi ziren, kultura ezberdinak balorean jarri behar zirela sinetsita: *Lasarte-Oria guztiona*. “Immigrazioa arazo sozial gisa hartu beharrean aberastasun bezala ikustea, hori izan zen abiapuntua”, kontatu digu Gorka Lizarraga Lasarte-Oriako Gizarte zinegotziak.

## Lasarte-Orian, Anitzen Sarea

Hasieratik, herrian dagoeneko martxan zeuden elkarteekin egin dute lan, horiek direlako herriko bizitza dinamizatzen eta parte-hartzea bultzatzen dutenak. Etorkinen elkarteekin, baina baita euskara, kultur, kirol, auzo... elkarteekin ere. Denak inplikatu dira, eta Anitzen Sarea sortu dute horrela. Elkarlanean Anitzen

Astea, Elkar Ezagutzen ekimena, Ongi Etorri Bideoklipa eta halakoak burutu dituzte, eta gaur egun modu naturalean dituzte hartu-emanak batzuek eta besteek: Rocío jaia ospatu nahi duela Semblante Andaluz elkarteak? Bada, Kukuka Dantza Elkartekoak, nigeriar, nikaraguar, perutar dantza taldekoak eta gainerakoak deituko ditu, horiek ere parte har dezaten. Ttakun Kultur Elkartek ere batzuen eta besteen parte-hartzea bilatzen du Santa Ana Eguneako parodian, eskolako gurasoek euren artean antolatu dute Aniztasunaren Astea... “Elkarteek beraiek euren ekintzetan aniztasuna presente izatea da gakoa eta Anitzen Sareak hori lortu du, ez gendelako elkar ezagutzen, eta herri berean bizi ginen! Herrian gauzak egiten zituzten elkarteak ziren, baina bakoitzak bere aldetik. Kontua ez da gainera bertakoen eta kanpoan jaiotakoen arteko elkar ezagutza, denen artekoa baizik: denak gara hemengoak, bakoitza bere jatorri, balore eta motxilarekin, bere aberastasunarekin. Eta elkar ezagutzeak ere ekartzen du elkar ulertzea”, azaldu du Gorka Lizarraga.

Lanketa ez da beraz taldeka egiten, ghettoak sortzeko arriskua dagoelako; helburua da herrian zernahi egiten dela euskaldunak, nigeriarrak, sahararrak, andaluziarrak... aintzat hartzea. Berdin euskararekin: egiten diren ekintzetan euskara sustatzea eta erabiltzea da xedeetako bat, eta horretan lan handia egiten dute, adibidez, Anitzen Sarean dauden Ttakunek eta Banaiz Bagara euskara elkarteak. “Mugarri baino, euskara batzeko izan dadila nahi dugulako. Baina guk ez ditugu euskara ikastaro doakoak eskainiko kanpotik etorrita-

**“Herriko elkarteak bakoitza bere aldetik aritzen ziren. Anitzen Sareak lortu du elkar ezagutzea. Eta elkar ezagutzeak elkar ulertzea dakar”**

Gorka Lizarraga, Lasarte-Oria

*Lasarte-Oria guztiona da herri gipuzkoar honetako leloa.*







## «Aniztasunarekiko estimuak eskolaren giroan egon behar du»

HAMABOST urte daramatzagu fenomeno hau bizitzen eta aniztasunaren eta inklusioaren diskurtsoa politikoki zuzena da eskola guztietan, baina ikastetxe batzuetan praktika ez dator bat diskurtsoarekin. Hala uste du Amelia Barquín Huhezi unibertsitateko irakasleak: “Gizartearen parte batean mantentzen den ideia da ‘hobe etorkinak (edo etorkin asko) ez egotea gure eskolan’, eta modu formalak edo informalak bilatzen dituzte eskola horietan etorkin asko ez matrikulatzeko”. Hala, ikastetxe jakinetan kontzentrazio artifizialak edo ghettoak aspalditik ematen dira, baina soluzioa ez da banaketa, “ezin dira pertsonak hartu eta jatorriaren arabera eskola batera edo bestera bidali, desiratzen ez dena banatuko bagenu bezala. Beste bide batzuk jorratu behar dira: adibidez, herri batean bi eskola baldin badaude, batean etorkinik ez eta bestean etorkinak baino ez daudela, hor administrazioaren esku-hartzea beharrezkoa da egoera orekatzeko (administrazioak ordea ez du inolako neurririk hartzen); bi ikastetxe horietako zuzendaritzak eta gurasoak bildu

**“Aniztasunari erantzuteak lana eta denbora eskatzen du eta horri heltzen dioten eskolek baliabide gehiago izan beharko lituzkete”**

beharko lirateke, duten erantzukizun sozialaz hitz egiteko. Beste modu bat da baliabideak ematea: aniztasunari erantzuteak lana, denbora, ahalegina... eskatzen du eta beraz, erronka sozial honi erantzuten dieten ikastetxeek nabarmen eduki beharko lituzkete besteek baino baliabide gehiago. Zoritxarrez, agian hori akuilu litzateke desiratzen ez diren ikasle batzuk erakartzeko”. Izan ere, lana eta denbora dira ikasle hauek nahi ez izateko arrazoietako bat, baina atzerritar talde batzuei lotzen zaizkien estereotipo eta mesfidantzak ere ez ditugu ahaztu behar. “Sarri mesfidantzak aporofobiarekin du zerikusia, pobreenganako fobiarekin. Etorkinak eta klase baxuko familien seme-alabak biltzen dituzte eskola batzuek, eskola publikoan batez ere, eta ikastolek pausoak eman behar dituzte gai honetan”. Azken finean, “gizarte autoktonoak integartzeko eskatzen die kanpotik etorritako familien seme-alabei, baina aldi berean ez gara gauza familia horien umeei aukera eskaintzeko autoktonoen umeei batera sozializatu daitezen”. Auzo eta herrietan ikastetxeak dira kohesio sozialerako tresna nagusia, “harremanetan jartzen dituztelako bai umeak, bai auzoko gurasoak. Horregatik da hain garrantzitsua eskolan aniztasuna egotea”.

### **Bertako kultura ere denena da, eskubide guztiekin**

Ikasgelan gaia jorrazteko, gauza oso berezirik ez dela egin behar dio Bar-

quínek. “Aniztasunarekiko estimuak eskolaren giroan egon behar du. Horrek esan nahi du umeak etxetik dakarren esperientzia, egunerokotasuna... aintzat hartzea eta gelan presentzia izatea. Gabonak ospatzen ditugun moduan, gelan dauzkadan musulmanen festez hitz egitea, adibidez. Beti ere kontuan hartuta umeak ez direla kulturen ordezkariak, bertakoen artean aniztasuna dagoen moduan, kanpotik iritsitakoen artean ere berdin gertatzen delako: Mohammed ezagutzen ari gara, eta haren etxean agian ez dira fededunak edo ez dute kuskusa prestatzen, baina beste ume honen etxean aldiz bai... Eta ez dugu ahaztu behar, ume horiek, berdin du non jaio diren edo haien gurasoak non jaio diren, bertakoak ere badira, eskolak transmititu behar die bertako kultura ere haien kultura dela, ez bakarrik autoktonoen seme-alaben kultura, eskolan dauden ume guztiena baizik. Gero umeak bizitzan zehar bere identitatea garatuko du eta identitate hori anitza izan daiteke, baina bertako kultura haiena ere bada, esku-bide guztiekin”.

### **Gurasoekin negoziatu eta argi izan zer den garrantzitsua eta zer bigarren mailakoa**

Etorkinak gatazkarekin lotzea akatsa dela azpimarratu digu irakasleak. “Etorkin kopuru handia dagoen eskolak ezagutzen ditut eta giroa beste eskoletan bezain ona edo txarra da”. Beste kontu bat da familia

koarentzat, baizik eta herritar guztientzat, batez ere euskaldundu gabeko jendea ez delako bakarrik orain atzerritik etorri dena”, dio Lizarragak. Herriko ume denak D ereduan matrikulatuta egotea ere lagungarria da. Bi ikastetxe daude, biak publikoak, eta atzerritarren seme-alaba kopurua oso ezberdina da batean eta bestean. “Aurrerantzean heldu beharreko gaia izango da”, aitortu du zinegotziak.

Hiru hilean behin, errolatu berriek bilera egiten dute alkatearekin (datuek diote 700 bat lagun iristen direla urtero herrira, inguruetatik lekuz aldatuta). Elkarreak gonbidatzen dituzte bilerara eta batez ere iritsi berriek dituzten zalantzak eta kezak argitzeko balio du.

### **Getxon, bizilagunak bazkari baten bueltan**

Getxok 80.000 biztanle ditu eta %6,8 inguru atzerrian jaioak dira (EAEko batez bestekoan dago, gutxi gorabehera). Latinoamerikatik iritsitakoak dira gehienbat, erdia baino gehiago emakumeak, eta zahar eta haurren zaintzarekin edo etxeko lanekin lotutako enpleguetan ari dira. Emakume kopurua eta bizi ohi duten egoera zaila kontuan hartuta, haiei bideratutako tailerrak antolatzen ditu Udalak, emakume hauen ahalduztzean laguntzeko asmoz.

Elkarbizitzara bideratutako ekimen zehatzak ditu Getxok. Duela urte batzuk, esaterako, Getxon eta Getxotik kanpo jaioetakoen partehartzearekin, identitate ugariaren bizi-istorioz



eta auzo jakinen egoera sozioekonomikoari lotuta sor daitezkeen arazok. Aniztasunak gai berriak jarri ditu mahai gainean, halere. “Esaterako, irudikatu guraso musulman batzuek ez diotela alabari baimenik ematen igerilekura joateko. Hasteko, kulturekin baino, familia bakoitzaren ohiturekin daude lotuta gatazkak, eta beraz, gurasoekin bildu behar da eta haiekin negoziatu, familiak dioena jasoz eta ulertuz, epaitu gabe. Eta bereizi behar dugu zer den garrantzitsua eta zer ez gatazka horretan: alaba igerilekura joatea garrantzitsua da, igeri egiten ikastea, baina ez biki-nian joatea; bainujantzia bada arazoa, estaliago joan dadila”.

Curriculumaz ere galdetu diogu eta ikas-materialetan aniztasun ororen presentzia oraindik txikia dela baieztatu digu: “5. mailako matematika liburua hartzen badugu, irudietan askoz gizon gehiago dago emakumeak baino, ez da agertzen zuria ez den pertsonarik, aulki gorpildunak dagoenik, ekarpen zientifikoak ere oso ikuspegi etnozentristik egiten dira, beti Mendebaldetik begiratuta... Gerta daiteke 10 urte eskolan eman dituen ikasleak ez topatzea bikote homosexualik bere bizitza akademikoan”. Aniztasuna, halaber, modu naturalean txertatu behar da ikas-materialetan, ez soilik espezifikoki lantzen delako.

Azkenik, hizkuntza da eskolen erronka nagusietakoa: “Etorkinek eta etorkinen seme-alabek gainerakoen eskubide eta aukera berberak izan behar dituzte euskara ikasteko eta euskaraz bizitzeko. Bi elementu dira aintzat hartzekoak: nola lortu batetik



**Duela hamar urte, Ramon Bajo ikastetxea A ereduakoa zen eta ikasle guztiak etorkinen eta ijitoen seme-alabak ziren. Egun, D ereduakoa bihurtzeaz gain, aniztasuna orekatuagoa izatea lortu dute.**

etxetik euskaradunak diren umeek ohitura ez galtzea, eta bestetik nola lortu euskaraz ez dakitenek ere (guraso erdaldunak dituztelako) euskaraz ikasteko aukera izatea. Bi horien arteko oreka bilatzea da erronka”.

### **Kontzentrazio artifiziala apurtzea lortu duen eskola**

Gasteizko Alde Zaharrean dagoen Ramon Bajo ikastetxeko gurasoa da Amelia Barquín. Duela 10-11 urte, A ereduakoa zen eta ikasle guztiak etorkinen eta ijitoen seme-alabak ziren, guztira 80 bat ikasle. Aukera sortu zen 2 urtekoentzako gela sortzeko euskaraz, D ereduakoa, eta hainbat gurasok hala eskolatu zituzten haurrak. Gela horren bidez, D ereduak urtero hurrengo mailara zabaltzen joan zen eta A ereduak apurka-apurka desagertzen. “Ez genituen bi hizkuntza eredu nahi; denok elkarrekin gela berean egon behar genuela argi genuen eta ez jato-

rri sozioekonomikoaren arabera”. Egun, eskola D ereduakoa da osotasunean eta 170 bat ikasle dauzka. Zerbakiak orekatuagoak diren arren, oraindik ijito eta etorkinen seme-alabak dira gehiengoak. “Honek erakusten digu A ereduak ez zela bertako gurasoei erreparoa eragiten zien arrazoa (edo arrazoi bakarra), etorkinen kopuru handiak beldurra eta mesfidantza sortzen diela bertakoei, baina pozik gaude eta oso eskola dinamikoak da, giro atseginak du eta dugun aniztasunaz harro gaude, ez bakarrik diskurtziboki, baita praktikan ere. Euskal Herrian dugun deskontzentrazio adibide bakarra izango da hau, eta komunitatearengandik eratorria, ez administrazioaren eskutik”. Auzoko elkarte eta eragileekin harremanak du eskolak eta sinergia oso aberasgarriak sortzen dira, kirol hezitzaile programa edo auzoko gurasoei zuzendutako gaztelania eskolak adibide.

osatutako errelato partekatua eraiki zuten. Lekukotzak grabatu eta 10 minutuko dokumentala egin zuten, denek artean.

Azken finean, datuek erakusten dute migratzaile gehiago bizi den lekuetan atzerriarrenganako jarrera ezkorra txikiagoa dela –hots, zenbat eta gehiago elkar ezagutu, orduan eta mesfidantza gutxiago—. Bide horretan, Bizilagunak egitasmoa jarri zuten martxan duela bi urte, Egizu Getxo Euskaldun elkarteak sustatuta. Auzo berean bizi arren elkar ezagutzen ez dutenak harremanetan jartzeko asmoz, biz-

pahiru familia (indibidualki ere har dezakete parte) haietako baten etxean elkartzen dira,

bazkaltzeko eta tertulian aritzeko. Dinamizatzaile baten laguntzaz, hizkuntzaz, herriminez, kulturaz, norberaren esperientziak... hitz egiten dute, “eta hori guztia bizi duenak berak kontatzea, haren ahotik entzutea garrantzitsua da”, azpimarratu du Elena Coria Getxoko Gizarte Zerbitzuen zinegotziak, diskurtso handiak baino eraginkorragoak direlako pertsonak. Aurreikuspenak gaititu ditu ekimenak: lehenengo urtean, 2013an, 20 bat fami-

**Getxon Zurrumurruren Aurkako Agentekak dituzte, 25 bat herritar. Euren eguneroko bizitzan eragitea da asmoa, pixkanaka aniztasunaren aldeko diskurtsoa zabaltzeko**





liak eman zuten izena eta 2014an 30 inguruk: 130 lagun, 15 etxetan banatuta.

Zurumurrurik Ez proiektuak hiru urte daramatza martxan. Zurumurruen Aurkako Agentak dituzte, 25 bat herritar (15 egonkor). Aurreiritzi ohikoenak indarrak gabe uzteko lagungarri zaien prestakuntza jasotzen dute (argudio eta datuak) eta euren eguneroko bizitzan eragitea da asmoa, ingurukoak gogoetara bultzatzea hainbestetan errepikatzeagatik egia diruditen baieztapen funsgabeak auzitan jar ditzaten, eta elur-bola efektu bidez aniztasunaren diskurtsoa pixkanaka zabaltzen joan dadin. Lasarte-Orian bezala, ekimen hauek guztiak herriko elkarteekin batera lantzea oinarritzotzat dute Getxon ere.

“Folklorea sustatzea ongi dago, baina Etor-kinaren Nazioarteko Eguna eta halakoak ospatzea ez da aski, sentsibilizaziotik harago errealtate sozioekonomikoa aintzat hartzea ere beharrezkoa da”, diosku Coriak. Tokiko ekonomia eta garapen politiken baitan, adibidez, negozioren bat abiatu nahi duten etorkinekin lanketa berezia egiten da, “sarri kanpotik datorrenak traba erantsiak dituelako: nola kontratatu, zein laguntza jasotzeko eskubidea duen, izapide burokratikoak nola egin... azaltzen zaio”, eta horretarako Deli proiektua du Getxok.

Euskara ikasteko plangintzak, Lasarte-Orian bezalatsu, herritar guztiei daude zuzenduta. Hori bai, iritsi berriei egiten zaien harrera programan euskararen oinarritzko ezagutzarako ikastaroak eskaintzen dira. Getxoko datuen arabera, guraso atzerritarrek dituzten ikasleen erdia A ereduan dago matrikulatuta (gaztelania oinarri duen ereduan). Aldiz, beheko mailetan B eta D eredua dira nagusi, eta Haur Hezkuntzan %70ak D eredua hautatzen du; bigarren belarrialdiek euskararen alde egiten duten seinale, Coriak azpimarratu nahi izan duenez.

### Barañainen, formazioa lagungarri

20.458 biztanle ditu Barañainek, horietatik 2.003 espainiar ez beste nazionalitate batekoak. Alegia, %9,8, Nafarroako batez bestekoa goiti-beheiti. Latinoamerikarrak dira gehie-

**Barañaingo egunkarian, hilero jaioterri ezberdin bateko bizilagunari egiten zaio elkarrizketa (ezkerreko irudian). Getxon, negozioa abiatu nahi duten etorkinak laguntzen dituzte, Deli proiektuaren bidez (eskuineko argazkian).**

nak, eta errumaniar eta bulgariarrak ere ugari dira. Gizarte Zerbitzuen sailaz gain, Immigrazio Zerbitzua dute Barañainen, eta ailegatu berriei izapideekin, erregulazio prozesuarekin, ikasketa tituluen baliozkotzearekin, hizkuntza eta kultur kontuekin... laguntzen zaie. Behar izanez gero, aholkularitza psiko-logikoa eta juridikoa ere eskaintzen dute.

Enplegua lortzeko erraztasunak emate alde- ra, formazio ikastaroetan leku batzuk beti gordetzen dira atzeritik etorritakoentzat, “ez atzer-ritar izateagatik, baizik eta ahultasun egoera handiagoan egon daitezkeelako, sare familia-rraren babesa ere txikiagoa da kasu askotan”, argitu du Karmele Irisarri Immigrazio teknika-riak. Supermerkatu, denda eta enpresekin elkarlanean ikastaroak ematen dituzte, gero horietan praktikak egin eta kontratazioarako aukerak zabaltzeko. Eta bestelako formazioa ere jasotzen dute herrian, kultur aniztasunari erantzuteko. Adibidez, hezkuntza eta osasun arloko langileek iaz nesken mutilazio genitalari buruzko jardunaldiak izan zituzten, etorkizun-ean kasuren bat izanez gero nola jokatu jaki-teko.

**Barañainen, praktiketara bideratutako lan ikastaroetan lekua gordetzen da atzeritik etorritakoentzat, “ez atzeritar izateagatik, ahultasun egoera handiagoan daudelako baizik”**

Kohesio soziala indartzeko berriz, hilero jaioterri ezberdin bateko bizilagun bati elkarrizketa egiten zaio herriko egunkarian, herrialde hartaz hitz egin dezan, bere esperientziak... Eta topiko faltsuak desmuntatzeko artiku-luak ere argitaratzen dituzte egunkarian.

Lasarte-Orian eta Getxon beza-la, herriko bizitzan parte-hartze anitza bultzatzea eta areagotzea da xedeetako bat. “Oinarria da herritarrek dituz-ten beharren arabera sortutako ekimen eta elkarteetan mota guztietako jendeak hartzea parte, behar hori izan dadila elkartuko dituen-a, jatorriaren araberrako konpartimentu artifizia-lak eratu ordez”, nabarmendu du Irisarrik.

Gazteenak buruan, urte pare bat darama-tzate giza eskubideei buruzko unitate didakti-koa jorratzen herriko ikastetxean, eta aniztasu-na oso presente dago lanketa horretan; tartean, ipuin kontaketa kulturazintasun egiten dituzte.

Argi dute elkarrizketatuek: elkar ezagutzea, aitortzea eta ulertzea, elkarbizitza bera, da kohesio sozialerako berme handiena. ■



PERTSONAIA

ALDA FACIO

# «Feminismoak bizitza salbatu dit»

*“... gehiegi luzatzen diren salbuespen egoeratarako emergentziazko planak”.*

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco



New York. 1960ko hamarkada bukaera. Emakumeen eskubideen aldeko manifestazioak. Zu.

Mugimendu sineskor bezain idealista bateko kide apasionatua nintzen eta mundua aldatzera gindoazen. Ez ginen haize-alde ari, erakunde askok gutxiesten gintuzten, erakuntzako langileek jipoitzen... Baina aferak aurrera soilik egin zezakeelakoan geunden. Azken hamarkadek, ordea, atzeraldiak mehatxuka dauzkagula irakatsi digute, gutxi

behar dela lorpenak komunitatek behera botatzeko. Zentzu horretan, orduko feminismoa argiagoa zen, gardenagoa. Mugimenduentzako oinarritzako lanabesak izango ziren feminismoen teorien azterketa eta transmisioa genituen xede, ez egileek bakarrik ulertzen dituzten egungo ikerketa elitistak. Hanka-sartzea izan da teoria hari mataza askagaitz bihurtzeraino akademizatzea. Edozein emakumek, unibertsitatea inoiz





zapaldu ez duten etxeko andreek barne, euren bizitzetan gertatzen ari dena ulertu eta aldatzeko giltzak ematen dituzten lanak behar ditugu.

**Giltzak atea zabaldu eta aurrera egiteko dira, motorra martxan jarri eta abiatzeko.**

Oraindik ez gaude aurrerapausoen garaian, “atzera pausorik ez!” aroan baizik. Are gehiago, egiteke hainbeste edukita ia ezinezkoak dira atzerapausoak. Zinez arriskutsutzat gauzkatenean etorriko dira erasoak eta atzeraldiak. Orain arte ez gara inorentzat arriskuak izan. Orain aldiz, NBEen estatu batzuek argi eta garbi esaten dute ez dutela gizon-emakumeen arteko berdintasunean sinesten, emakumeek gizonezkoen meneko behar dutela. Gero eta estatu gehiagok azpimarratzen dute pertsona batek agindu behar duela familian, pertsona batek komunitatean, pertsona batek herrian, pertsona batek estatuan... Eta pertsona batek diotenean uler bedi gizon batek. Orain gutxi leporatu zidan Pakistango enbaxadoreak emakumeen aurka indarkeria feministon asmakizuna zela gizonezkoek jendartearen duten posizioa ahultzeko. Orain arte ez zen inor halakorik irado-

## NORTASUN AGIRIA

**Alda Facio.** Genero eta emakumeen eskubideen alorrean nazioarteko aditu nagusietakoa da legelari, idazle eta militante feminista kostarrikarra. CEDAW-ko (Emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiak deuseztatzeko batzordea) hizlari berezia da, eta NBEko idazkari nagusiaren emakumeen kontrako indarkeriari buruzko aholkulari izana. Sari anitzen irabazle, herrialde askotan unibertsitateko irakasle, zenbait legeren egile, eta lehendakari eta lehen dama batzuen diskurtsoak idazteaz gain, *Sobre patriarcas, jerarcas, patrones, y otros varones eta Cuando el género suena, cambios trae* liburuak idatzi ditu.

kitzera ausartzen. Orain bai. Zergatik? Arriskutsutzat gauzkatelako eta arriskuak gure baitan gordetzen diren egia mingarrienak azalerrazten dituelako.

**Azaleratu liteke jendarte feminista bat kapitalismoaren baitan?**

Kapitalismoa patriarkatuaren seme nagusia den heinean, ez. Patriarkaturik gabeko kapitalismoa ezinezkoa denez, kapitalismoaren eta feminismoaren baloreak kontrajarriak dira.

Patriarkatua da munduko lehen dominazio mota. Hala, gizaki batzuk beste batzuen gaitetik jaiotzen dira eta euren nagusitasuna bermatzeko sortzen dituzte egitura zein lege guztiak. Hortik datoz gainontzeko desberdintasun guztiak: klase sozialetan oinarrituak, azal kolorearen arabekoak, sexualitateari loturikoak... Gauzak zer diren, kapitalismoaren teorien emakumeok ez gara existitzen, baina patriarkatua bezain sistema anker eta sotila ezingo litzateke mantendu botere guneetan emakumeen inolako presentziarik ez balego. Emakumeek boteretik ez dutela edo boterera heltzeko direnak eta bi egin behar dituztela salatzen baduzu, Merkel, Lagarde eta abarren adibideekin jotzen dizute zaplaztekoa.

**Hatzarekin ilargia seinalatu eta batzuek hatza ikusiko dute beti.**

Ez dutelako ilargia ikusi nahi! Emakumeek patriarkatuaren baitan dituzten botereak oso gaiztoak dira. Esaterako, amaren boterea. Ama da hurrei kultura transmititzen diena, eta ondorioz, bere buruari harrika eginez, patriarkatua transmititzen duena. Botereak ez dio patriarkala izateari uzten emakumeen esku egoteagatik. Begira Indian, emakume asko eta asko euren amaginarrebek dituzte

erailtzen. Ez dute euren mesedetan egiten, ordea, euren semeen alde baizik. Zeharo manipulatzaila baita patriarkatua, emakumeenganako epai irizpide zorrotzagoak inposatzeko bezain ankerra. Costa Rican emakume bat izan genuen lehendakari. Historiako desastre handiena zela zioen jendeak. Egia da desastre bat zela, neoliberal hutsa, baina bere aurrekoak eta aurrekoaren aurrekoak egin zutena egin zuen, ez gehiago, ez gutxiago. Gizonezko agintari bat zitala eta zikoitza izan daitekeela onartuta daukagu, emakume agintari zital eta zikoitza historiako desastre handiena da.

**Giza-harremanak, jendarte antolaketa, hizkuntza auziak... Dena da boterea?**

Botere harremanak daude gaitz guztien oinarrian. Hala, botere harremanak aztertu eta ulertzea ez da sare bat nola ehuntzen den ikertzea soilik, nork eta noren mesedetan saretzen duen agerraraztea baizik. Gaia zentzuz lantzen duen edonor jabetuko da gero eta boteretsu gutxiago dagoela gero eta botere gehiagorekin. Esaterako, Carlos Slim enpresariak nire herrialdeak baino diru gehiago du. Ondorioz, berak erabakitzen du zer egin daitekeen eta zer ez, zer den garrantzitsua, zerk duen lehentasuna, zer inportatu

**Maiatzak 17, Igandea, Usurbilgo Sagardo Eguna**

**Zatoz Usurbilgo sagardo egunaz gozatzera!**



**SAIIZAR**

**Sagardotegia**

Sagardotegiko erreserbak: **943 37 39 95**

(Igande gaua eta astelehena eguerdian itxita)

**www.sidrassaizar.com**

**Menuak**  
24 €-tik 28 €-tara





daitekeen, nolako lan baldintzak behar diren... Gizon horrek demokraziaren itxura guztiak zainduko ditu, baina nirea bezalako herrialde txikietan doministiku batekin alda dezake legea. Okerrena da miretsia dela, jende xeheak gurtua, eta aurpegia garbitzeko fundazio bati limosna ematea aski du heroi bihurtzeko. Horretaraino erotu da mundua. Nola uler daiteke, bestela, norbanako baten aberastasunak mugarik ez izatea? Pertsona batek lege ez luke hein batetik gorako dirutzarik ukan behar. Hori azaltzean, alta, ikasleak asalatu egiten zaizkit, erotuta dagoena ni naizela diote.

#### Nolakoa litzateke mundua emakumeek pentsatua balitz?

Oso ezberdin ikusten da mundua noizbait norbait zaintzea tokatu bazaizu. Mundu patriarkatuan monumentuak egiten zaizkie gerran hil direnei, baina ez etorkizuneko belaunaldiak bizirik mantendu dituztenei. Horregatik, ziur nago mundua emakumeen esku utzi balitz, zaintza baloratuagoa eta oinarritzkoagoa izango litzatekeela denon

## AZKEN HITZA

### Erlijioak

“Munduko bost erlijio nagusienetarik bakar bat ez dago gizon-emakumeen arteko berdintasunaren alde. Are okerrago, oinarrian gizonaren menpeko rola banatzen zaio emakumeari. Hala, argiki aldarrikatuz edo era sotilagoan, denek dute emakumearen gorputza eta erabakia kontrolatzea xede”.

bizitzetan. Orain arte asko arduratu gara produkzio materialaz, baina oso gutxi erreprodukzio humanoaz. Oraindik orain, haur bat ekarri eta hezteak parentesia edo eten bat suposatzen du askorentzat. Are okerrago, patriarkatu kapitalista honek zaintza lana tuntunen lana dela sinetsarazi digu, garrantzitsua karrera bat atera, dirua irabazi eta gailu elektroniko andana edukitzea dela. Hori ezin da legeekin soilik aldatu, mentalitate eta jarrera aldaketa behar da. Jakina da lapitzak ez duela nobela idazten, baina arkatzik gabe ez dago nobelarik. Erabili beharreko lanabesak dira legeak, zapaltzaileak diren neurri berean izan baitaitezke askatzaileak.

#### Diskriminazio positiboaz ari zara?

Hainbesteko desberdintasunak ez dira berez berdintzen, kanpotik eragin beharra dago. Esaterako, Amerikako Estatu Batuetan, diskriminazio positiborik gabe ez legoke zurien eta beltzen arteko berdintasunik. Diskriminazio positiboak berdintasuna azkartu egiten du, bidea sasiz garbitu. Arazoa da diskriminazio positiboak posizio pribilegiatuan edo boterean daudenen aurkako neurriak direla sinetsaraztea lortu duela sistemak. Costa Rican, 1982an, kongresuaren %50a emakumezkoa izan zedin kuotak exijitzen hasi ginenean, “dena nahi dugu!” leporatzen ziguten. “Dena ez, erdia bakarrik” erantzuten nuen nik, baina dena edukitzera ohituta dagoenari erdia laga beharra dena uztea iruditzen zaio. Nola ulerrazten zaio gizonezko bati egin dezakeen onena bere lekua uztea dela? Berdintasunean zinez sinestea pribilegioak askatzea da, munduarentzat hobe dena zuretzat ere hobe dela jabetzea.

#### Berdintasun ezak indarkeria dakar.

Eta gizon-emakumeen arteko berdintasun ezak genero indarkeria. Misoginia dagoeno, batzuen biziak besteenak baino gehiago balio dueno, ez dago miraririk. Noren heriotzekin zabaltzen dira albistegiak? Zer-

gatik dira batzuen heriotzak beti hamabosgarren albiste? *50 shades of Grey* filmean erotizatzeraino naturalizatzen da indarkeria. Kasualitatea, lege batzuek biolentzia debekatzen eta zigortzen dutenean bihurtu da erotikoa indarkeria. Patriarkatua etengabe moldatzen da egoera berrietara. Legeek traba egiten diotela? Indarkeria kamuflatzen saiatzen da emakumeek txartzat har ez dezaten. Zenbat aldiz entzuten da “maite nauelako jotzen nau”? Patriarkatuak ez ditu alferrik 7.000 urte. Badaki azalberritzen, badaki dena aldatzen denak berdin jarrai dezan. Emakumearen biziak, ikusmoldeak eta ekintzak gutxiago balio dutela da aldatzen ez den bakarra. Horregatik ez dute legeek sekula emakumea behar bezala babesten. Horregatik eragin behar da heziketan eta kultura aldaketan.

### Behetik gora etorriko da aldaketa?

Aldaketa emango bada, behetik gorakoek eta goitik beherakoek norabide berean bultza behar dute. Printzipioz, ideala litzateke aldaketa behetik gorakoa izatea, baina horretarako erakundeek emakume mugimenduak sustatu eta babestu behar dituzte. Esaterako, erakundeei dagokie hedabideei belarritik tiratzea gaia serio landuz estereotipoetatik harago irits daitezen. Noiz ohartuko dira estereotipo horiek direla emakumeen aurkako bortxaren eragile? Adierazpen askatasunaren aurka biraoka aritza leporatuko didate, baina noiztik da adierazpen askatasuna bizia bera baino garrantzitsuagoa? Zenbat negozio eredu ezkutatzan da adierazpen askatasunaren moztarpea? Noren buruan sartzen da herrialde gehienetako indarkeria matxistari buruzko artikuluetan erruaren zati bat emakumeari egozte? Horrelako ereduak ez da harriztekoa jendea “emakume” edo “feminismo” hitzekin berehala enpatxatzea. Dena begi androzentristetatik ikustera ohitu denari, gai hauetan sakontzeak, ezagutzen ez duenari

buruz irakurtzeak suposatzen dion nagia eragiten dio. Nik, ordea, patriarkatua desagertzen den egunean soilik utziko diot feminismoaz hitz egiteari. Patriarkatuak emakumeak hiltzen eta zapaltzen ditueno, eta gizonezko askoren bizitza izorratzen dueno, ez dago bakerik.

### Justiziari generoaren betaurrekoekin so eginez ikusten da bakea?

Generoaren betaurrekoekin ez da gizon-emakumeen arteko tratua ezberdintasuna soilik ikusten, gizakiaren molde dominatzailetan ez dauden aldeko justizia baizik. Noiz pentsatuko du justiziak burokrasia kontuak egitera doanari haurtzaindegia eskaini behar diola? Huskeria dirudi, baina haurra non utzi ez badu, nola jarriko du salaketa emakume batek? Gauza bera legeekin. Orintsu arte legeek ez zioten deus emakumeen aurkako indarkeriaz, biktimek ez zuten zeresanik auzian. Zergatik? Legeak gizonezkoek egiten zituztelako! Sekulako borroken ondorioz aurrerapausoak eman dira, baina hala ere, oraindik ez daukagu lege idealik, denek dute arrasto androzentrista bat. Horri aurre egiteko ezinbestekoa da emakumeon ahalduntzea. Alabaina, ahalduntzea ez da helburu bat, bide bat baizik. Eskubide baten alde borrokatzeak ahalduntzen gaitu, eskubide hori mantentzeak ahalduntzen gaitu, gure bizitzari buruz guk geuk erabakitzeak ahalduntzen gaitu. Ahalduntzea emakumeon baitako arnas bat da, ez zerutik datorren ezer.

### Arnasa ahalduntzeko, feminismoaz hitz egin beharrean ez al litzateke feminismoaz aritu behar?

Inork ez dezala pentsa feminista guztiok sinesmen berak ditugunik, arazoari irtenbide berdinak aurreikusten dizkiogunik. Bereizketarik ezak argi eta garbi frogatzen du gure jatorri, kultura eta mundu ikuskera ezberdinak ez direla aintzat hartzen, ez gauzkatela gizaki bakantzat, oraindik ere 25 emakume 50 titi garena. Arazoa da alde guztietatik garena galtzaile. Gure arteko diferentziak azpimarratuz gero gure artean ezin garena ados jarri nabarmentzen da, eta denak berdin agertuta gure aniztasunari egiten diogu uko. Horregatik da ezinbestekoa iparra ez galtzea, nondik gatozen eta nora goazen argi izatea. Orain urte batzuk nire hitzaldietan aho zabalka egunkaria irakurtzen egoten zirenak kongresuetan adi-adi dauzkatz orain, arrazoizko argumentuez gain lehen ez genituen argumentu juridikoak ditugu alde... Feminismoa ez da gauetik goizerrako iraultza, baina niri bizitza salbatu dit. ■

**INAKIBEREZIARTUA**  
Enbalajeak · Biltegiatzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

**25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828  
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com



# Sexua askatasunez bizitzeko mugimendu politikoa

Kitzikan gazte antolakundea urte hasieran sortu da. Sexualitatea eta ekintza politikoa bateratzen ditu. Heteropatriarkatuaren aurka, garai bateko jarrera politiko erradikala berreskuratu nahi dute. Eskualdeka hasi dira lanean, eta Hego Euskal Herri osoan zabaltzea dute helburu.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

URTARRILAREN 31N aurkeztu zuen bere burua Kitzikan gazte antolakundeak. Bergarako (Gipuzkoa) gaztetxean elkartu ziren hamarnaka lagun. Norbanakoen eta talde gonbidatuen artean ziren LAB sindikatua, Euskal Herriko Bilgune Feminista, Medeak talde feminista eta Ernai. Gazte deitu diote beren buruari, baina ez diote adinari begiratuko, gazte espiritua da nabarmendu nahi dutena. Hego Euskal Herrian zabaltzen ari diren taldeak, oraindik Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ari dira lanean. Eskualdeka antolatu dira eta Donostialdean, Gasteizen, Bilbon, Ezkerraldean eta Uribe-Kostan sortu dira taldeak, besteak beste. Eskualdeko batzarrek egitura orokorraz gauden, autonomiaz jardungo dute.

## 1969 hura gogoan

Sexu askapenerako mugimenduen hasierako erroak berreskuratu nahi dituztela diote. Hasiera 1969an kokatzen dute, New Yorken (AEB), Stonewall taberna ospetsuan izandako istiluetan. Sexu langileek, transexualek, trabestiek eta homosexualek poliziari aurre egin zioten, eta hainbat egun iraun zuen matxinadak.

Batzuen ustez ordea, eztanda hark ez zuen asko iraun. 1980ko urteetan, sexu askapenaren mugimenduan haustura egon zen, eta queer mugimendua piztu zen. Pentsaera hori LGBT ideologiaz harago doa, heterosexuallitateaz, heteronormatibitateaz eta emakumegizon binomioaz gauden gutxiengo sexualak hartzen ditu bere barnean. Queer diskurtsoaren iritziz, 1969ko espiritua galdu egin zen eta eredu heterosexuala hura irensten ari zen. Kitzikanek ez du bere burua

**Kitzikanek ez du bere burua queer mugimendutzat, ez du izendapenik hartu, baina aipatu mugimendutik oso gertu kokatzen da**

queer mugimendutzat, ez du izendapenik hartu, baina aipatu mugimendutik oso gertu kokatzen da.

Ekaitz Herrero Kitzikaneko kidearen aburuz, azken urteetan kontuan hartu beharreko beste zenbait gertakari izan dira: “Krisi ekonomikoa hasi zen 2006an; sexu askapenerako mugimendua berriro kokatu nahian zebilen; eta tokian tokiko arazoak sortu dira, Ukrainan, Udaberri Arabiarren ondorioz Turkian, eta abar”. Nazioartean azken urteetan sortutako mugimendua gainbegiratu du Herrero: Errusiako eta Ukrainako Kaos GL, AEBetan arrazakeriaren ildotik queer mugimendua, Turkian queer intifada, Palestinan ere bai...

Giro horretan sortu da Kitzikan, sistema heteropatriarkalaren kontrako jarrera politiko erradikala berreskuratzeko asmoz.

## Hutsunea betetzera

Euskal Herrian Kitzikanek nahiko lukeen moduko mugimendurik ba al dagoen galdetu

ta Herrero honela erantzun du: “Euskal Herriko egoera soziopolitikoa, antolatze eta borrokatze modua, kontzientzia kritikoa kontuan hartuta, beste leku askotan baino mugimendu gehiago egon da, eta horietan, sexu askapenaren ere bai, egiteko moldeak koherenteagoak izan dira. Hasiera hartan behintzat bai”. Euskal Herriko mugimendua erradikalagoa, politikoagoa, botere guneetatik ez hain gertu irudikatzen du Herrero. EHGA jarri du adibide. Hasierako aldarrikapen haietatik, oraindik ere, nahiko hurbil dabilela uste du. Hala ere, gorakadaren ondoren, bertan goxo egitea edo



URIBE KOSTAKO KITZIKAN

Espainiako Estatuan, gorrotoarekin lotutako erasoek gora egin dute. Eraso arrazistak, xenofoboak, homofoboak, matxistak dira. Kitzikan antolakundeak ez ditu erasoak mailakatu nahi. Taldeko kide Ekaitz Herreroen ustez, ideologia bera dago erasoan atzean, "norberaren kolorea, jatorria, sexu praktikak, bestearenak baino zilegiago direla pentsatzeak Europan izen bat dauka: faxismoa. Faxismoa ez da eskuin muturreko nazi batek ezkerreko militante bati egindako eraso soilik, magrebtar baten aurka egitea ere bada faxismoa. Argazkian, Algortako eraso homofoboaren aurka egindako manifestazioa.

zahartzea datorrela uste du, eta indarrik eta aukerarik gabe geratzen direla mugimenduak haien nahiak betetzeko.

### Homofobiaren Aurkako Eguna ospatu behar al da?

1990ean, Osasunaren Mundu Erakundeak homosexualitatea Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenetik atera zuen. Erabaki hori oinarri hartuta, Homofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna prestatu zuten. Lehenengo aldiz 2005eko maiatzaren 17an egin zen. Herreroen ustez, ez dago zertan ospatu munduko erakundeek homosexualitatea buru gaixotasunen zerrendatik atera izana. Maiatzaren 17a antolatzen duten berberak transexualitatea zerrenda berean egotea ez dutela zalantzan jarri dio Herrerok: "Transexualitateak heterosexualitatearen erregimena ezbaian jartzen du, jada ez daude gizonak eta emakumeak

soilik, hirugarren pertsona bat aldarrikatzen da". Izatekotan, borrokarako baliatuko dute Homofobiaren Aurkako Eguna, gogoratzeko oraindik badirela izate eta praktika ugari gaitxotasuntzat hartzen direnak.

### Ekainaren 28an bai

Sexu Askapenerako Eguntzat du ekainaren 28a LGBT (Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transgenero) mugimenduak. Kitzikaneko kidearen ustez, egun hori oso garrantzitsua da mugimenduarentzat: 1969ko ekainaren 28 hartan sistema heteropatriarkalaren aurrean, orduko hartan, poliziaren aurrean, ez makurtzea erabaki zuten. Herrerok gaineratu du zoritxarrez egun hori ere despolitizatzea lortu dela, eta tabernaz eta enpresaz betetako erakusleiho bihurtu dela. Ez ordea Euskal Herrian. Hemen borrokarako eta aldarrika-penerako eguna izaten segitzen du. ■



- Abentura kirolak  
 - Ezkonaurreko agurrak  
 - Familiarteko jarduerak  
 - Abentura bidalak  
 - Material tekniko alokairuak  
 - Eta askoz gehiago...

San Juan 18 - Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635 748 948 - 635 748 947  
[www.inguruabentura.com](http://www.inguruabentura.com) - [info@inguruabentura.com](mailto:info@inguruabentura.com)








**June  
Fernández**

♦  
KAZETARIA

## Homofobiak ez nau harritzen

HEDABIDEEK BI ERASO homofoboren berri eman zuten apirilean. Lehenengoa Getxon izan zen: gay aktibista bat bere bikotekidearekin zegoen terraza batean, gizon batek berarengana jo zuen “marikoi” oihukatuz eta aulki batez kolpatu zuen. Bigarrena Madrilén: lau lagun kalean zihoazen gauean eta talde batek “marikoi” oihukatuz jipoitu zituen.

Sare sozialetan harridura adierazi dutenak heterosexuak ote diren intuizioa daukat. Gay eta lesbianentzat, maritxu eta soropilentzat, ordea, homofobia eta lesbofobia gure eguneroko errealitatea delako. Hots, Getxoko berria irakurri eta egun batzuk geroago, Bilboko lagun baten deia jaso nuen: bere lagun batek “marikoi” oihukatzen zion gizon talde bati ihes egin zion, oso izututa. Gertatutakoa salatu nahi zuen.

*Inoiz bortxatuak ez izan arren, emakumeok kaletik sentitzen dugun beldur sistemikoari sexu ikara deitzen zaio. Guk ikara homofobiko eta lesbofobikoa bizi ditugu. Kanean bikotea musukatzerakoan edo besarkatuta paseatzean, zaila da urduritasun puntua ez sentitzea. Erne gaude, begirada edo hitz mingarriren bat jaso dezakegulako*

Halako gertakariak LGTB mugimenduko pertsonon beldurrak elikatzen dituzte. Inoiz bortxatuak izan ez garen arren, emakumeok kaletik sentitzen dugun beldur sistemikoari sexu ikara deitzen zaio. Guk ikara homofobiko eta lesbofobikoa bizi ditugu. Kanean bikotea musukatzerakoan edo besarkatuta paseatzean, zaila da urduritasun puntua ez sentitzea. Erne gaude, begirada edo hitz mingarriren bat jaso dezakegulako. Batzuetan harro edo ausart sentitu ahal gara, beldurra gainditu dugulako, esparru publikoan gu izateagatik politika egiten ari garelako. Baina hori salbuespen egoeran bizi dugun adierazle da. Lelo feministak dioten bezala, ez dugu ausart sentitu nahi, aske baizik.

Nire familiako kide gehienek ez dute nire lesbianismoa onartzen; fase bat dela uste dute, onurarik ekarriko ez didana, eta ez dute nire bikotekidea ezagutzeko gogorik, emakumea delako. Nire bi lagun heteroei hau kontatu eta ni animatzeko asmoarekin hauxe erantzun zidaten: 1.: “Esaiozu zu pertsonekin maitemintzen zarela” (ze polita, “les-bi-ana” baino askoz dotoreagoa). 2.: “Ez dut ulertzen nori axola zaion norekin oheratzen zaren”. Eta 3.: “Hala ere, ez dut ulertzen zergatik batzuek homosexualak direla oihukatu behar duten”. Amorrua irentsi nuen. Nola azaldu halako komentarioak ere iraingarriak direla? Nola azaldu eurek ere “heterosexuala” dioten kartela daramatela aurpegian itsatsita? Nola azaldu homosexualitatea ez dela sexu zaletasun pribatu soil, homofobiak eta lesbofobiak gure nortasunean, bizitza afektiboan, familiarrean eta publikoan eragina daukatela? Nola azaldu heterosexualitatea ez dela aukera bat, pertsonak mugatu eta zapaltzen dituen sistema krudela baizik?

Behinola, Bilboko autobusean, nire atzean bost urte inguruko neskatila zihoran bi emakume heldurekin —demagun ama eta amama zirela—. “Eneko zure nobioa da?”, galdetu zioten. Eta haurrak: “Ez. Eneko nire laguna da. Leire da nire nobia”. Eta helduek: “Ez, maitea. Eneko zure nobioa da. Leire zure laguna”. Heteroarauak txikitatit nor deseatu eta maitatu behar dugun esaten digu, bestela presioak jasoko ditugu, bide egokira itzul gaitezen.

Facebooken eraso homofoboaren berri ematen duten gizon askok, lagunartean “marikoi” hitza erabiltzen dute, irain zein “txantxa” bezala. Tolerantzia eta egiazko sexu aniztasunaren onarpenaren artean salto handia dago, eta ez dut ikusten heterosexuak definitzen diren pertsona gehienek heterosexismoaren kontra borrokatzen dutenik. Indarkeria matxistarekin gertatzen den bezala, erosoagoa da homofobia eraso isolatuen multzoa dela pentsatzea, norberak bere ardura onartu eta eguneroko jarrera heteronormatiboak aldatzeko konpromisoa hartzea baino. ■





Ainhoa Larrañaga

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA ♦



AMAI TXINTXURRETA

## Erabakitzeke eskubidea & autodeterminazioa

ASKO GARA Euskal Herrian erabakitzeke eskubidearen inguruan sortu, garatu eta hedatu den ildoak piztu duen ilusio berriaren baitan, galdera bati erantzun nahian informazio eta formazio bila ari garenok. Bi eskubideon artean dagoen anabasa argitze aldera beraz, horra begitandu zaizkidan ideia gakoak:

Erabakitzeke eskubidearen gakoak da, *demos* batek (demokrazia batean bozkatzeko eskubidea duen pertsonen osatutako subjektu batek) hauteskunde batzuetan gehiengo lortuz edozein gauza erabaki dezakeela. Bere burua demokratikotzat duen estatu bateko herritarrez ari da. Ondorioz, sistema demokratiko batean gaudela onartzen dugu. Aldiz, herri okupatua garela onartzen badugu, ezin ditugu zapaltzen gaituzten estatuak demokratikotzat hartu eta okupatzaileari ezin diezaiokegu gure askatasunaren gaineko erabakimenik eman. Okupatzailearekin batera bozkatzeko onartzen dugu, eta askatasuna gure etorkizunerako aukera bat baino ez da.

Autodeterminazio eskubidean kontrara gertatzen da eta Nazioarteko Komunitateak aitortzen du, herri zapaldu guztiek dutela autodeterminaziorako eskubidea. Herri guztiek, zein gobernu mota nahi

duen aukeratu, garapen ekonomiko, sozial eta kultural propioa bilatzeko eta antolaketa propioa sortzeko eskubidea dute. Eta herriak definitzen dituzten esanez direla: beren nortasunaren kontzientzia dutenak, berena uste duten lurralde bati atxikiak eta zuzenki edo zeharka kontrolatzen dituzten baliabide

eta energiak erabiliz beren beharrak betetzen dituzten gizatalde antolatutak. Herriaren existentzia onartzen da eta askatasuna da aukera bakarra; askatasuna ez da eskatzen, gauzatu egiten da. Kasu horretan baina, indarrik eta estrategia argirik ez badago, etsaiak, autodeterminazio eskubidea, manipulaturako *demos*aren zati bati eginiko inposaketa bezala aurkeztuko du eta ondorioz, demokratikoa ez dela esango du.

1512an euskaldunoi antolakuntza politikoa biolentziaren bidez lapurtu ziguten, ordutik ez gara demokrazian bizi eta Benito Lertxundik dioten moduan: herri bateko independentzia ez da bozkatzeko. Estatuaren makina oso indartsua da (hedabideak, intelektualak, beldurra...). Menpeko egoeran ezin da erreferendumik irabazi eta askatasuna edo esklabutza ez dira bozkatzeko. Zer dago esklabutza baino gogorragorik? ■

*Okupatzailearekin  
batera bozkatzeko  
onartzen dugu,  
eta askatasuna  
gure etorkizunerako  
aukera bat  
baino ez da*

JOSU SANTESTEBAN



**Edu  
Zelaieta**



IDAZLEA

## Midas

DEMAGUN, une batez, informazioa dela gaurko urrea. Barka, utzidazue zehatzago esaten: demagun informazioa kontsumituko duten pertsonen arreta lortzea dela gaurko urrea. Maiz hala aritzen baitira komunikabide nagusiak. Guregatik ari direla esango digute. Informatuak egoteko eskubidea aldarri hartuta, beharbada. Guregatik eta guretzat. Barka, utzidazue berri ere zehatzago esaten: zeuregatik eta zeuretzat.

Zeuk eskatu gabeko ehunka kontu azalduko dizkizute xehero-xehero. Momentuko berria zein den ere komunikabideek

erabakiko dute. Hartara, kargu hartuko dizute lanean edota familia bazkarian ez dakizulako zer gertatu den: “Zein mundutan bizi haiz, baina?”. Are gehiago, halako albisteetan tragedia eta drama ohiko osagai direnez gero, fribolotzat hartua izateko arriskua ere baduzu. Jakizu. Uhin nagusien kontrakarrean ibiltzeak, nahi gabe izanda ere, beti dakar prezioaren bat.

Midas erregearen mitoan bezala, komunikabideek ukitzen duten guztia urre bilakatzen da. Urregorri. Urrezuri. Urre ahaztu. Non dira orain Nepalez kontatu (ez) dizkizuten istorioak? ■



**Rosa Maria Martín Sabarís**

♦ EHUKO IRAKASLEA. IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOAN ADITUA

## Fake

EGIA ALA GEZURRA. Errealitatea ala fikzioa. Informazioa ala iritzia. Egiantzekoa ala gezur-itxurakoa. Objektibotasuna ala subjektibotasuna. Fantasia ala errealitatea. Benetakoa ala faltsua. Txantxetakoa ala fidagarria. Sinesgarria ala sinestezina, sinesgaitza. Dokumentala ala erreportajea. Ala albistea. Ala dokudrama. Ala propaganda. Ala...

Dikotomikoak bailiran.

Honelako ezbaian jartzen ditut ikasleak dokumentalaren definizioa bilatzen abiatzen garenean. Ikastaroa hasi orduko aldarrikatuta izaten dute dokumentalen atxikimendua. Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten duen orok, errealitatea ulertzen saiatzen den orok, gustuko du dokumentala. Eguneroko informaziotik harantzago edo egile batek errealitateaz duen ikuspuntua ezagutu nahi duenak dokumentalera jotzen du. Hori da dokumentala.

*Zer da “dokumental faltsua?”. Dokumentalaren ertz lausoak ikertu behar izan dituzte aurtengo ikasleek dokumental faltsua eraiki ahal izateko. Nola sortu egiantzekoa den gezurra? Eta zertarako? Sinesgarritasuna lortzeko estrategien bila abiarazi dute ariketa*

Baina, zer da “dokumental faltsua?”. Dokumentalaren ertz lausoak ikertu behar izan dituzte aurtengo ikasleek dokumental faltsua eraiki ahal izateko. Nola sortu egiantzekoa den gezurra? Eta zertarako? Sinesgarritasuna lortzeko estrategien bila abiarazi dute ariketa. Arestian Jordi Évolek egindako *Operación Palace* dokumentalak egilearen ospeak eta katearen izenak duten garrantzia erakutsi du.

Nire ikasleek ez dute osperik (oraindik), ez katerik ere. Hortaz, beste estrategiak erabili behar izan dituzte *fakea* egiteko: adituen adierazpen manipulatuak, benetako dokumentuen erabilera maltzurra, gehiegikeria, irudi polisemikoak... Egia-itxura eraikitzeko bideak, direnak direla, dokumental faltsua ez da apletak emandako entretenimendu hutsa. Engainuaz ohartzen garenean, errealitatearen inguruko hausnarketak ekartzen du. Gaiaren aukeraketak, beraz, daki-gunaren hauskortasunaz hitz egiten digu.

Jaioberriei kontrolerako txertatuko zaien mikrotxipa, Gipuzkoako zenbait udalek Aste Santuko oporrak Udaberriko opor bihurtzeko erabakia, Euskal Herrian muturreko bikaintasuna bilatuko duen Unibertsitate Gorenaren, euskarak gaztelerari ekarri dion kaltea, edo ikuskizun erraldoia bilatzearren bat-batekotasuna galdu duen bertsolaritza... Horiek izan dira aurtengo gaiak. Denak gezurra, denak sinesgarriak.

*Fakea* ziurgabetasunetik dator. Edo, Jean Baudrillardaren hitzetan, hiper-errealitatetik. Azken finean, paisaiarik ederrenaren mugikorrek pantailari begira gelditzen garenean, irudiak errealitatea irentsi du. Mapak lurraldea. Selfiak gure egoa. ■

## Animalia (areto berria)

Natura ezagutu, errespetatu eta zaindu egin behar dugu  
Eureka! Zientzia Museoan - 943 01 24 78 - eurekamuseoa.es - Donostia





## Ikusten ez denaz



KONTAIZU.EUS

**Onintza  
Enbeita  
Maguregi**



Lau hizlari\*, lau berba  
puntu, koma, marra.  
Lau lagun: hiru eme  
tarteak bat arra  
betaurrekoak falta  
sobera bizarra  
sasoi baten ispilu  
aurrean oilarra  
emeak ikusteko  
nonbait bista txarra.

Mende erdi atzera  
egiteko gertu:  
aldaketa urteak  
nola ziren lehertu.  
Aresti, Lauaxeta  
hausnartu, aztertu  
Txabi gabeko Bilbo  
be ezin ulertu  
baina neskari inon  
ez ginen agertu.

Isilik egotea  
ez ei da problema  
batez ere jakinda  
aukera bat dena.  
Batek jan dezakeen  
pozoinik txarrena  
erretzen dizkiona  
erraiak, barrena  
da isiltzen dutenean  
isiltzen duena.

Historia hurbila  
hemen da gloria  
azalek dute gerra  
tatuai lodia.  
Non daude galtzaileen  
dominak, gloria?  
Beldurrak isilduen  
egunak, zoria...  
Geu ari gara josten  
geureen historia.

Gerratik ihesean  
joandako moduan  
laurogeitamarreko  
urteen inguruan  
kaleak sutan zeuden  
gazteak guduan  
hodeiertza ikusten  
zaila zen zeruan  
ta euskaldunak arnasa  
behar du munduan.

Norberak norberea  
bizi ohi duenez,  
kontakizunak ditu  
beregain hainbat ertz.  
Dena ez da zuria  
ta dena ez da beltz  
sasoiak pasa ahala  
bizirik gaudenez  
*Beltzuria* daukagu  
gordeleku legez.

**Doinua:** Gogoratuko zara herriko jaietan.

\* HUHEZIk antolatutako Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoa, Ixiar Rozas, Eider Rodriguez, Mari Luz Esteban eta Joseba Zulaikak emaniko hitzaldien gainean jarritako sorta.

ERDIKO KAIERA

MAITE GARBAYO

# «Errealitate sozio-politikoak auzitan jartzeko arte-ekintza pribilegiozko tokia da»

Arte historialaria da Maite Garbayo Maeztu (Iruñea, 1980). Iazko ekainean doktore tesia aurkeztu zuen frankismo amaierako performance obrei buruz. Gaur egun, ikerketa lanean ari da Mexikoko UNAM unibertsitatean eta, beste bi kiderekin batera, *Pipa* arte aldizkaria editatzen du. Erresistentzia gune gisa ikusten du artea, esan ezin daitezkeenak esateko eta estrategia estetiko-politikoak garatzeko balio duen heinean.

| DANELE SARRIUGARTE MOCHALES |

FRANCINA RIBES PERICAS





Feministaldian izan zinen iaz, eta, besteak beste, performabitrate-bira delakoaren garrantzia azpimarratu zenuen.

Artearen historian, tradizionalki, subjektu batek (artista) objektu bat sortzen du (artelana), gero beste subjektu batek beha dezan (ikuslea). 60ko hamarkadan zenbait artista gertaerak sortzen hasi ziren, objektuak beharrean. Horixe da performatibitate-bira.

Oso garrantzitsua izan zen, sakon erroto-tako bi dikotomiarekin hautsi zuelako. Bate-tik, subjektu eta objektuaren arteko biko oposizioa hautsi zuen, eta beste espazio bat sortu zen, subjektu-artekotasuna dei geneza-keen zerbait. Bestetik, performanceak ordura arte estetikotzat jotzen zenaren mugetatik harago zihoazenez, estetikoaren eta ez-esteti-koaren arteko oposizioa ere apurtu zuten. Garbi geratu zen estetikoaren soziala dela, eta politikoa, eta etikoa.

**Agertzen diren gorputzak aztertu dituzu zure tesian.**

Hasteko, eta performatibitate-biraren kontua aipatu dugunez, pare bat hitz esan nahi nituz-ke performatibitate kontzeptua- ren beraren harira, nahaste- borraraste handia baitago, horretan dabilen jendearen artean ere. Kontzeptua asko erabiltzen ari da arteetan, eta baita feminismoan ere, baina, egiatan, lengoaiaren filosofiatik dator, eta zera esan nahi du: badaude deskribatzaileak beharrean performatiboak diren enuntziatu batzuk, hots, errealita- tean ondorio zehatz batzuk sor- tzen dituztenak.

Beste kontu bat dira performance edo ekintzak, horiek zuzenean daude lotuta artea- rekin. Nire tesia, hortaz, ez da performatibi- tate kontzeptuari buruzkoa, baizik eta fran- kismoko azken urteetan Espainiako Estatuan egin ziren performancetan agertu ziren gor- putzen inplikazio estetiko-politikoei buruz- koa. Hala ere, tesiaren barruan, performatibi- tate kontzeptua baliatu dut aztertzeko nola artista horiek performatiboki ondorio edo ekintza zehatz batzuk sortzen dituzten errea- litate publikoan, espazio publikoan ekiten baitute sarri.

**Zer esan nahi du gorputz bat agertzeak?**

Espazio publikoan presentzia-espazio bat hartzea da eta, horrekin lotuta, subjektuak agertzea hartzea. Agertzen den hori ez da derrigor absente zegoen zerbait; ordea, beste modu batean agertzen da edo ikusgarritasun mota zehatz bat hartzen du. Andreen gorpu- tzaren adibidea jartzen badugu, ideologia

nazional-katolikoak andre-gorputz zehatz batzuk moldatzen eta ekoizten zituen, erregi- menari zerbitzu egiteko, eta eredu horiek zeu- den presente. Nik aztertu dut 60ko hamarka- dan agertzen hasi ziren andre artisten gorputzek zer zeukaten aurreko gorputz horretatik (ezin baitzen huts-hutsetik hasi), eta zer gauza berri proposatzen zituzten.

**Hortaz, frankismo amaieran, gorputzarekin lan egiten zuten andre artista asko izan ziren Espainiako Estatuan?**

70eko hamarkadan gauza nahiko berezia ger- tatu zen Katalunian, seguru asko, estatu fran- tsetetik gertu zegoelako eta diktadura ez zela- ko beste toki batzuetan bezain gotorra. Artista talde bat, gerora kontzeptual katala- nak deitu izan dituztenak, lanean hasi zen bestelako medioekin: instalazioa, bideoa, per- formancea... Praktika alternatiboak zirenez, ez hain instituzionalizatuak, hainbat andre sartu ziren artearen esparrura.

Andre artista horietako batzuekiko interesa izan zen nire tesiaren abiapuntua: Fina Mira- lles, Olga Pijoan... Horien xerkan hasi nin- tzen, baina konturatu nintzen

ekintza-lan guztietan gorputza lehen lerroan ipintzen zela, eta hori oso esanguratsua zen, hain zuzen ere, 40 urtez gorputzaren diskurtso nazional-katolikoa nagusi izana zen toki batean ger- tatzen ari zelako.

Gero, jendeak beti galdetzen du Esther Ferrerren lanak benetan feministak izan ote ziren, baina modu hartan agertzea ezinbes- tean izan zen iraultzailea. Garai-

ko prentsa irakurtzea besterik ez dago: puta esaten zioten, itzulingururik gabe.

**Tesian planteatzen duzu eremu estetikoaren erre- sistentzia-gune izan daitekeela. Adibiderik?**

Gonçal Sobrénen lan bat datorkit burura, *La dansa de l'afusellament* [Fusilamenduaren dan- tza], 1966 ingurukoa. Sobré horma baten parean dago, gorputza mugitzen du tiroka ari balitzaizkio bezala, eta lurrera jausten da. Bar- tzelonako Poblenou auzoan egin zuen, Camp de la Botan, jende mordoxka fusilatu zuten tokian. Arte-ekintza bera, itxuraz, kaltegabea da: tipoa ez da espetxera joango pareta baten aurrean mugitzeagatik. Hala ere, esan ezin daitekeen hori esaten ari da, arekaten dauden gorpu horiek guztiak aipatzen ari da.

Sobrénen obrak, tesian aztertzen ditudan lan askok bezala, debekatuta zegoena esateko modu berriak sortzen ditu eta zentzu horre- tan jo dezakegu estratègia estetiko-politiko- tzat eta erresistentzia-gunetzat. Artearen

**“Ideologia nazional-katolikoak andre-gorputz zehatz batzuk ekoizten zituen erregimenari zerbitzu egiteko. 60ko hamarkadako andre-artisten gorputzek zer berrikuntza proposatu zuten aztertu dut”**



Esther Ferrerren *Intimo y personal* performancea argazkian. Frankismoaren azken urteetan egindako performanceetako gorputzen inplikazio estetiko-politikoetan jarri du fokua Maite Garbayok bere tesian.

esparruan anibalentzia moduko bat sortzen da, arte-ekintza ikuskizuna ala errealitatea ote den. Horrek aukera eremu bat irekitzen du, lengoiaia bihurritu baitaiteke, eta metaforen edo metonimien bitartez hitz egin. Esparru estetikoa eta, kasu zehatz honetan, arte-ekintza, pribilegiozko toki bilakatzen da, errealitate sozio-politiko zehatz bat auzitan jartzeko eta kritikatzeko. Zenbait artistek egindako gauzak aktibistek egin izan balituzte, gogor jazarriak izango lirateke.

**Aztertu dituzun artistak nahiko ahaztuta egon dira orain gutxira arte.**

Bai, artista hauetako asko erabat baztertuak izan ziren 80ko hamarkadan, proiektu nagusiago baten mesedetan, Trantsizioa esan dioten horren mesedetan. Artearen esparruan ondorio oso zehatzak izan zituen. Bira oso erreakzionarioa egin zen, atzera margogintzara itzuliz, nahiz eta aurreko hamarkadan abangoardiako praktikak egin zituzten, besteak beste, Zaj-ek edo Esther Ferrerrek.

Trantsizio garaian, Espainiako Gobernuak, kanpora begira, modernitate-irudia eman nahi zuen, diktadura gainditu zelako itxura eta, hain justu ere, orduantxe sortu zen ARCO azoka eta diru-laguntzak eman zitzaizkien artista jakin batzuei. Esportatutako artista guztiak gizonak ziren, jenioaren estereotipoarekin bat egiten zutenak, gainera.

Oro har, 80ko hamarkada nahiko garai kontserbadorea izan zen (Thatcher, Reagan), baina Espainiako Estatuan aurreko praktika guztiak ahaztu ziren, eta orain gutxira arte ez

dira ikertzen hasi, 90eko hamarkadatik aurrera, batik bat.

**Artista hauen lanak ez zion mesederik egiten trantsizioaren kontakizun ofizialari.**

Inondik ere ez. Hain zuzen, hori izan da tesiaren ondorio garrantzitsuenetako bat. Praktika hauek ikuspegi berri eta zehar-lerro-kodun batetik aztertzean, genero-ikerketak eta klasea ere kontuan hartuta, ikusten dugu eduki politiko indartsu bat daukatela eta zalantzan jartzen dutela Espainiako Estatuaren historia hegemonikoa, eta, bereziki, trantsizioaren kontakizun ofiziala, alegia, trantsizioak aurreko erregimenarekin hautsi zuela dioen kontakizun hori. Agerian uzten dute ez zela zinezko aldarrikatzen izan, aurrekoaren jarraipena baizik.

**“70eko hamarkadan performancea landu zuten artista asko baztertuak izan ziren, Espainiako Trantsizioaren proiektuaren mesedetan”**

**Mexikoko UNAMen zaude orain, eta bertan idatzi zenuen tesiaren puska bat ere.**

Bai, 2013-2014ko ikasturtean hemen izan nintzen. Oso lagungarria suertatu zitzaidan, hemengo akademian lantzen ari direnak gako interesgarri asko eskaini zizkidalako, tartean, frankismo amaierako obra horiek ezberdintasunetik abiatuta pentsatzeko gakoa. Latinoamerika ezberdintasunetik pentsatzen da, daukaten kolonizazio-historia bortitzagatik. Frankismo garaian, Espainiako Estatua ere ezberdintasun-toki bat zen, ez baitzen Europa ez sinbolikoki, ez artistikoki, ez intelektualki. Han gertatu zena ezin da arte feministak anglosaxoiarekin alderatu, zenbaitzuek egin bezala. ■



ERDIKO KAIERA

PETER FINK

# Zestoako Osinbeltz berreskuratzeko artea

Zestoako Osinbeltz harrobia berreskuratzeko proiektuaren diseinatzailea da Peter Fink (Londres, 1948). Paisaiaren arkitektoa eta ingurumen diseinatzailea da, eta antzeko lanetan aritua bezain aditua.

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |

DANI BLANCO



GIPUZKOAKO HONDAKINAK tratatzeko Zubietan eraiki asmo den TMB plantatik ateratako materia inertizatua biltzeko gordetegiaren proiektua Zestoako Osinbeltz harrobian egiteko aukera dago. Horrela aurkeztu zuten Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2014ko azaroan. Proiektua Zestoan egiteko erabakia herritarren esku utzi dute eta galdeketa egingo da, baina bitarte horretan parte-hartze prozesu bat jarri dute martxan, zestoarren esku ahalik eta informazio gehien jartzeko ahaleginetan. Fase honetarako gonbidatu dute Peter Fink. Hamar bat egun pasa ditu Urola Kostan Osinbeltz koloreztatuko duen diseinatzaileak, eta tarte txiki bat hartu du ikusi eta aditu duenaz hausnarketa gurekin partekatzeko.

**Zer ikusi diozu Osinbeltzi, proiektua onartzeko?** Jendea zalantzati dago, eta gustatzen zaizkit horrelako egoerak. Proiektu hau ez da soilik ingurumena berreskuratzea, herritarren identitatea eta espiritua indartzea ere bada. Jendar-

**Mota askotako parkeak eta plazak egindakoa da Peter Fink diseinatzaile ingelesa. Bere proiektuei tankera hartzeko [www.studiofink.eu](http://www.studiofink.eu) webgunea bisitatu dezakezu.**

teari egoera sozioekonomiko zaila bizitzea tokatzen ari zaio, eta mesfidantza dakar horrek. Askotan ez da jakiten nondik askatuko den korapiloa, baina horrelako proiektuek lagundu dezakete pauso horietan. Nik artea galerietako lau paretetatik at ulertzen dut, jendeari eskaintzeko, emateko, laguntzeko zerbait bezala; eta horixe da Osinbeltzeko proiektua.

**Hainbat bilera egin dituzu zestoarrekin herrian izan zaren bitartean.**

Ikasteko ireki egin behar da. Proiektu bakoitza mundu bat da, mundu horretan jendea bizi da, eta mundu horrek funtzionatzea nahi baduzu herritarren hitza kontuan hartu behar duzu. Nik herriko ekosistemaz ezer ere jakin gabe proiektu *chic* bat ekarriko banu, *chic* izango litzateke bai, baina ez luke balioko. Pixkanakako ibilbidea da. Herritarrei entzun egin behar zaie, leku horrekin duten harremana ulertu, sentipenak azaleratzen lagundu. Eta hortik abiatuta osatuko dugu guztion artean egitasmoa. Hori izan da aurreneko bisitaren helburua: lehen harremana.

**Eta zer da lehen harremanean jaso duzuna?**

Asko gustatu zait euskaldunek “gure” kontzeptua erabiltzeko duzuen joera. Jendartearen izaera erakusten du. Bileren hauetan oso jarrera desberdinetako herritarrak ezagutzeko aukera izan dut, eta nire eginkizuna da horietako bakoitzari Osinbeltzen bere tokitxo ematea. Bileren batean tokatu zitzaidan hasieran kontrako jarrera adierazten zuen lagun batekin hitz egitea. Meategiak interesatzen zitzaizkion berari, eta ez zuen horrentzat lekurik ikusten. Interpretazio zentro baten adibidea eman nionean piztu zitzaion argia, eta hortik aurrerako eztabaida askoz ere errazagoa izan zen. Bere sentitu zuen proiektua. Esan bezala, hau prozesu bat da eta bakoitzak bere denbora behar du.

Turismoari bakarrik begiratu gabe, herritarrentzako gune bezala ikusten dute askok, irekia, naturarekin harremanetan jarriko dituen, edo inguruko mendi, meategi ala kobazuloekin lotu ahal izango dena. Elementu bakoitza koadro osoa pintatzeko kolore bat da, eta beharrezko pintzelada guztiak eman nahi dizkiot.

**Zestoakoa bezalako proiekturen batean lan egin duzu inoiz?**

Londresen egin genuen Northala Fields parkearekin badu berdintasunik Osinbeltzek. Hura obra-hondakinekin eta materia inertizatuarekin berreskuratuta zen, Zestoan Zubietako TMB plantatik ateratako materiarekin egin nahi denaren antzera.

**Kareharritzkoa da harrobia. Horrekin arazorik?**

Ez dut uste. Zubietako plantatik materia behar bezala tratatuta badator ez da arazorik egongo. Harrobia iragazgaitzeko sistema oso bat prestatuko dute, Bad Kissingengo (Alemania) kare-



**Londresko Northala Fields parkea goiko irudian. Finken lanetako bat da, obra-hondakinekin berreskuratutako espazioa eta diseinatzailearen iritziz badu antzekotasunik Osinbeltzekin.**

harrizko harrobi batean erabiltako bera. Zestoakotik bezala, Alemaniako harrobi honek gertu ibai pasatzen da, eta ingurumena errespetatzen duen eredu da.

**Harrobia hamabost urteren bueltan betetzeko asmoa dago.**

Epe nahiko laburrean zestoarek berreskuratuta ikusi ahal izango dute Osinbeltz. Eta abantaila nagusietako bat da

Udalak berak ez duela inbertsio ekonomikoki txikiak ere egin beharko, kanpoko kapitala bideratuko baita horretarako. Ez hori bakarrik: harrobia betetzeko beharko diren urte horietan guztietan diru-sari zuzena izango du herriak, eta ondoren ere zeharkako sari ekonomikoa indartuko da (dela turismoa, dela ikerketa...).

**Dagoeneko izango duzu proiekturen bat buruan, ala?**

Estrategikoki leku aproposa da Zestoa, mendia eta kosta baitaizka elkarren ondoan. Lehendik ere ezaguna da kulturarekin, ingurumen edertasunarekin edo historiarekin duen loturagatik; eta Osinbeltzen berreskurapena indargune bat gehiago izan liteke ikuspegi horretatik.

Azken irudia nolakoa izango den zehaztu gabe ere, prozesuaren lehen fase honetan imajinatu ahal izan dut ze esentzia har dezakeen euskal identitatea, kultura eta baloreak oso presente dauden gune honek. Herritarrek eta bisitariek XXI. mendean euskal ohiturekin harremana mantentzeko txoko bat eduki ahal izango dute; ingurumena kontuan hartuta beren herrialde berdea mantendu beharreko lekua dela ikasi edo baloratzeko leku bat izan daiteke; eta euskaldunek horren barruan daukazen “etxea”-ren kontzeptua kanpotik datorrenari transmititzeko aukera ere izan daiteke, “munduak darraien bitartean etxea zutik mantentzea”. ■



**GIPUZKOAKO KONPOSTA**

## OSATU MATERIA ORGANIKOAREN ZIKLOA

Gure etxeetako sukaldeetan sortzen diren hondakin organikoekin egindako konpostari esker, berriro ere lurri itzultzen zaio, ongari natural moduan, lehen lur horrek eman duena.

**GIPUZKOAKO KONPOSTA**  
%100 ORGANIKOA. %100 GIPUZKOA.

**GHK**  
Gipuzkoako Hondakinaren Kudeaketa  
[www.ghk.eus](http://www.ghk.eus)



Literatura

*Argiaren alaba*  
Yolanda Arrieta

Autoedizioa, 2014



## Jostuna klasikoak harilkatzen

*Argiaren alaba* izeneko liburuan Bizenta Mogel Elgezabal euskal idazlearen bizitzara hurbiltzeko proposamena egiten digu Yolanda Arrietak. Datu erreale-tatik abiatu eta fikzioaren bidez egiten da klasiko honen berrirakurketa. Amaia izekoak eta Mirari ilobak idazlearen inguruan egingo duten ikerketa pausoz pauso jarraituko digu testuan. Jostein Gaarderen *Sofiaren mundua* eredu hartuta XIX. mendeko idazlearen bizimodua aurkeztu eta girotzen du. Markinan hasi eta Bilboko Abandon amaituko da egile honen ibilbidearen eraikuntza, eta datu antropologiko-historiko-psikologiko-biografikoak josiko dituzte protagonistok idazle klasikoak bere testuinguruan irudikatze.

Egindako ikerketaz eta sortutako fikzioaz gain, idazle honen inguruan egindako “hitzaldi-tailer-performancea” aurkeztuko digu Arrietak liburuaren amaieran, 10 kutzarekin eta irudimena lagun, dekalogo bat osatu zuten ikasleek. Aipatutako kutxetan ikasleek, besteak beste, kriseilua, abarkak, luma, tinta, txirikorda, ziba, bisturia, errosarioa, sendabelarrak eta bertso paperak aurkituko dituzte.

1782an jaio zen Mogel Azkoitia eta Bilboko Abandon hil 1854an. 1804an argitaratutako *Ipui onak* lanagatik da ezaguna, nahiz eta ez zen izan idatzi zuen bakarra. Arrietak *Argiaren alaba* deitu dio, Ilustrazioa eta arrazoia euskal tradizioarekin uztartu

nahi izan zituelako, “euskara eta ohitura onetan zentratu zela” esanez. Era berean, “ohiko ereduen gainetik jokatzeko jakin zuen” Arrietaren hitzetan, eta “barne espazio propioa eraiki zuen bere garaiko kumea” izan zen.

Arrietaren ustetan bi izan ziren bere ekarpenak, bata “haurrak eta alfabetatu gabeak (nekazariak) euskaraz hezteko eta hazteko lehen material pedagogikoa sortu izana”, eta bestea, “euskararen kategoria altxatu izana ahozko txiste hutsetik papereko hizkuntza klasikoaren parera”. Honez gain, ondoren argitaratu ziren alegi bildumen erreferentzia izan zela diosku, eta euskal haur eta gazte literaturaren aitzindaria dela.

XIX. mendean ez zen ohikoa emakume idazleak egotea, eta horretaz kontziente izan zen Mogel, bere hitzaurre gogoangarrian adierazi zuen bezala; eta Yolanda Arrietaren lan honi esker, bere bizitza nolakoa izan zen imajinatu dezakegu, ikerketa horren ondorioz jasotako datuak josi dizkigulako, *Jostorratza eta haria* lanean egin zuen antzera. Berak dioen moduan “tradizioa, historia bezalaxe, ezer izango bada, etenik gabe, astindu, aztertu eta berregin beharreko zerbait bizia delako”. Hemen duzue bada, lehen euskal emakume idazlearengana fikzioaren bidez hurbiltzeko gonbitea. ■

Amaia Alvarez Uria



## Liburu azoka

Santurtzin, maiatzaren 15etik 24ra Parke Zentralean.

### EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

*Bizi irakurriz!*



*Behi bi blues*  
Gaizka Azkarate & Azkaiter Pelox  
Gaztelupeko Hotsak, 2014

## Baby, baby, behi bi

UNAI AZKARATE Bergarako musikaria Fly Shit taldea utzi ondoren hasi zen Azkaiter Pelox moduan 2004an, blues, rhythm and blues, rock and roll eta beste zenbait doinu beltz lantzen. Azken urteotan hainbat disko kaleratu ditu, 2012an *Zamburleiker 6.0* izenekoa, eta hainbat modutan aritu da jendaurrean: Azkaiter Pelox, Azkaiter Pelox Band, Azkaiter Pelox eta The Road Band –Carlos Ortiz eta Amaia Azpiazu musikariek–, Mahaster River, Gaizka Azkarate & Azkaiter Pelox...

Hain zuzen, Gaizka Azkarate Soraluzeko gaztearekin osatu du *Behi bi blues* diskoa. Azkaratek harmonika jotzen du, Azkaiter Peloxek gitarra jo eta kantatu, eta kantuak Fredi Pelaez teknikariaren laguntzarekin grabatu dituzte Beasaingo Pottoko estudioan.

Kantu gehienak Azkaratek eta Peloxek beraiek sortu dituzte, eta bertsio pare bat egin dute. Otis Reddingen *Sittin' on the Dock of the Bay* kantuarien bertsioaren bidez Gipuzkoako Orioko itsas ertzer arian gaituzte, eta Bap! taldearen *Ez dut ezer esan nahi* hardcore kantua modu akustikoan egin dute, beren erara.

Blues doinuak dira, baina bluesaren giro malenkoniatsuari bizitasuna gehitzen diote eta ironiaz idatzitako hitzek irribarrea eragiten dute. Giro polita sortzen dute, azken batean. Azkaiterrek berak aitortu duenez, gai sakonen edo potoloen gainean hitz egin baino, nahiago dute xumeagoak diren beste gai batzuen edo gertakizun txikien inguruan aritu.

Bluesa maite dutela nabarmena da, ongi ezagutzen dutela. Doinu horiek jotzen eroso aritzen dira, eta aise egiten dute. Dena den, beren kantuak beste zenbait estiloren ukituak ere badituzte. *Zerbait begian*



*sartu zait* eta *Etxera bueltan* kantuetan, esaterako, funk eta swing aireak suma daitezke. Etxera bueltan kantuan, hain zuzen ere, bidaia dituzte hizpide. Azkaiterren hitzetan, Gaizka eta bera oso bidaia zaleak dira, eta bidaiek eskaintzen omen diete kantuak sortzeko inspirazioa.

Azkaiter Peloxek eta Gaizka Azkaratek eskarmentua ez ezik, umorea, gatzak eta piperra erakusten dute kantuak jotzean. Ausardiarekin, batere beldurrik eta lotsarik gabe aritzen dira, erraztasun handiarekin, eta musika tresnak ongi menperatzen dituztela eta ederki pasatzen dutela nabarmena da. Beren kantuak gustura entzuten ditut. Diskoan eta jendaurreko emanaldietan. ■

**Joxi Ubeda**



**Gaia: Mikel Laboa**

|                                                       |   |                                            |                                    |                                                   |                                               |                           |                          |                                             |                                                |                                                 |                                  |                        |                                |
|-------------------------------------------------------|---|--------------------------------------------|------------------------------------|---------------------------------------------------|-----------------------------------------------|---------------------------|--------------------------|---------------------------------------------|------------------------------------------------|-------------------------------------------------|----------------------------------|------------------------|--------------------------------|
| 4<br>HITZALDI<br>ERLIJOSO                             | ↓ | SILABA<br>HINDUA<br>↓<br>NORAT<br>ATZIZKIA | ↓                                  | 102<br>... EGIN,<br>AGURTU                        | ↓                                             | SASOIRA<br>HELDUA         | ↓                        | ALUMINIOA<br>HIZKUNTZA<br>AMERIN-<br>DIARRA | ↓                                              | 3<br>EUSKADIKO<br>EZKERRA                       | ↓                                | 2<br>JOAN DEN<br>URTEA | ↓                              |
| ↓                                                     |   | ↓                                          |                                    | ↓                                                 |                                               | MALTZUR-<br>KERIA<br>1502 | →                        | ↓                                           |                                                | ↓                                               |                                  | ↓                      |                                |
| LETRA IZENA<br>→<br>KETU<br>ADITZAREN<br>EKINTZA      | → |                                            | FRUITU<br>GARRATZ<br>↓<br>ZORIONEZ | →                                                 |                                               | ↓                         |                          |                                             | INFIN.,<br>EKARRI<br>↓<br>USOAREN<br>MURMURIOA | →                                               |                                  |                        |                                |
| ↓                                                     |   | ↓                                          |                                    |                                                   | DOLU,<br>GARBAI<br>↓<br>LANDARE<br>ARANTZADUN | →                         |                          |                                             |                                                | GABEZIA<br>↓<br>TRIKITIAN,<br>ADORE<br>EMATEKO  | →                                |                        |                                |
| BAT<br>→<br>OTE-MOTA                                  | → | ZAPATA<br>↓<br>KROMO-<br>SOMEN<br>OSAGALA  | →                                  |                                                   | ↓                                             |                           | OKARAN<br>→<br>UGAOTARRA | →                                           |                                                | ↓                                               |                                  | GIGA<br>→<br>ERATU     | →                              |
| ↓                                                     |   | ↓                                          |                                    | IZAERA, JITE<br>↓<br>BETE                         | →                                             |                           | ↓                        |                                             |                                                |                                                 | MOLIB-<br>DENOA<br>↓<br>KARRASKA | →                      | ↓                              |
| ZEZEN<br>↓<br>ZIKIRATUAK<br>1                         | → |                                            |                                    | ↓                                                 |                                               | ORAINGOZ<br>↓<br>ZABALDU  | →                        |                                             |                                                |                                                 |                                  |                        |                                |
| ↓                                                     |   |                                            |                                    |                                                   |                                               | ↓                         |                          | TUPARRIA<br>↓<br>ZEIN<br>TOKITAN            | →                                              |                                                 |                                  |                        |                                |
| KILOA<br>→<br>EZKONSARI                               | → | NERBIO-<br>SISTEMAKO<br>ZELULA<br>↓<br>To! | →                                  |                                                   |                                               |                           |                          | ↓                                           |                                                | ADITZA<br>(LABURDURA)<br>↓<br>SUITZAKO<br>IBAIA | →                                |                        | OIHAL<br>OSO FIN<br>ETA GARDEN |
| ↓                                                     |   | ↓                                          |                                    | ... GERATU,<br>HIL<br>↓<br>GAUEZ EGIN<br>OHI DUGU | →                                             |                           |                          |                                             | ZERGA (AL-<br>DERANTZIZ)<br>↓<br>AZPI          | →                                               | ↓                                |                        | ↓                              |
| LARRU, AZAL<br>→<br>GIZARTEKO<br>ONDASUNEN<br>MULTZOA | → |                                            |                                    | ↓                                                 | TRINKO<br>↓<br>MEGA                           | →                         |                          |                                             | ↓                                              |                                                 |                                  |                        |                                |
| ↓                                                     |   |                                            |                                    | ↓                                                 | ↓                                             |                           |                          | NAFARROA-<br>KO HERRIA                      | →                                              |                                                 |                                  |                        |                                |

[illegible]

# Intimitatearen hizkera politikoa



ITXARONALDIA luzea egingo zitzairen Anariren jarraitzaileei, 2009ko *Irla izan* hartatik kanta berririk argitaratu gabe zegoen, ez ordea geldirik. Urte hauetan publikatuak ditu *Bidea eta denbora* zuzeneko diskoa eta parte hartu du erreferentziazko hiru omenaldi-diskotan. Mikel Laboa zenari eskainitako *Txinaurriak* binilo bikoitzean laino elektrikotan bildutako *Aintzina*ko *bibotz* sinatu zuen; Imanol Urbietari eskainitako *Bakarrik eta libre*-rako *Gitarra baten* bertsioa eskaini zigun haurren ahotsez inguratuta; eta iaz publikatutako *Lou Reed, mila esker* lanaren azkenaurreko piezak ere bere marka dauka.

Nagusiki *Irla izan*eko erreperitorioa oinarrituta zuzenean aritu den urteotan publiko berria inguratu zaio Anarik berak telefonoaren beste aldetik aitortzen duenez. Eta entzuleen gosea sumatzen zen *Zure aurrekari penalak* aurkeztu aurretik: aurre-salmenta bidez eskatutako diskoak etxeetara iritsi ahala hasi dira iruzkinak agertzen sare sozialetan.

Joan den ostegunean aurkeztutako diskoaren tituluaz galdezka hasi gara hizketan, aurreko lanetan baino izenburu konkretuagoa zergatik hautatu duen galdetuz. “Intentzioa badauka. Ez da titulu erraza, badu jolasetik ere, diskoko kantu batek azaltzen du. Nahi izan dut beste idazketa bat landu, gauza berdinez beste hitz batzuekin kantatzeko. Ez naiz bat-batean kantu sozialak egiten hasi, baina hitz batzuk bai hartu ditudala eremu horretatik”. Nolabait esateko, egunkariaren lehenbiziko erdiko hizkera hartu eta bigarren erdira eramanez nahi izan duela esplikatu du.

Idea horrekin kanta egiten ari zela argitaratu zen Jose Luis Otamendiren *Kapital publikoa* poema liburua eta Anarik sumatu du asmoan halako kideetasun bat. “Ez naiz urrutitik ere konparatuko *Otorekin* noski”, egin du ñabardura, Azpeitiko idazleari dion begirunea azpimarratzearekin batera, “baina bide beretik abiatu ginela iru-

## Anari. Zure aurrekari penalak

### Aurkezpen kontzertuak:

Maiatzak 21, Bilbo (Kafe Antzokia)  
Maiatzak 23, Donostia (Intxaurren KE)

Maiatzak 28, Gasteiz (Jimmy Jazz)

Maiatzak 20, Azkoitia (Matadeixe)

Ekainak 4, Iruñea (Zentral)

Ekainak 5, Baiona (Atalante)

**Informazio gehiago:** anari.eus


ditu zitzaidan”. Disko berriko hitzek polisemia-joko ugari dutela dio, prentsako idazkerak ustekabeen eskaintzen dituen figura literarioak baliatu dituela.

Grabazio prozesu luzearen ondoren argitaratu da *Zure aurrekari penalak*: aurreko diskoak 15-20 egunean erregistratu zituzten, oraingoan aldiz “gehiegi ere” luzatu direla uste du azkoitiarrak, estudioan zenbat eta denbora gehiago pasa, orduan eta buelta gehiago ematen zaizkiela gauzei. Ifrentzua badu luzatze horrek, berrikusteko denbora gehiago hartu dutela. “Azkenen disko bat da egin nahi duzuna, lortzen ez duzuna... dena. Horrela behar zuen”.

Anariren ohiko taldeaz gain –Borja Iglesias, Mikel Abrego, Xabier Olazabal Drake eta Mariano Hurtado–, hainbat kolaboratzaile izan ditu diskoak: Eneko Burzako *Moby Dick*, Lisaböko Javi Manterola eta Karlos Osinaga *Txap* –soinu teknikaria ere bera izan da–, Napoka Iriako Ander Mujika eta Audienceko Ager Insunza, besteak beste. Ekipo ona aurreko musikazale gehienek zerrendan apuntatuta zeukaten nobedadearentzat. ■

**Gorka Bereziartua Mitxelena**





*Euskal Herria ezagutuz*

**BEASAIN (GIPUZKOA)**

# Igartza Monumentu Multzoa, herritik eta herriarentzat

Erdi Aroko Monumentu Multzo bat baino askoz gehiago da Igartza: merkataritzarako gune estrategiko, Europara burdina esportatzeko sorburu, nekazaritzaren eta industriaren arteko pasabide... Tokiko garapen sozioekonomikoaren mugarri zein hainbat berrikuntzaren sarbide izan da antzinatik. Gune historiko eta arkeologikoa izateaz gain, alta, herriarentzat eta herritarrentzat berreskuratutako funtzio askoko espazioa ere bada egun.

Testua eta argazkiak:

| AITOR KALTZAKORTA |

IRAGANDAKOA AZTERTUZ gaurkoa ulertzeko parada bikaina eskaintzen du Beasaingo Igartza Monumentu Multzoak. Erdi Aroko jauregi dotorearen parean elkar besarkatzen duten zubiak, galtzadak, dolareak, ermitak, burdinolak eta errotak osatzen dute berau. Balio historiko eta arkeologiko handikoak dira egun, baina garai batean puntako baliabide berritzaileak izan ziren eta tokiko sozio-ekonomiaren garapenean berebiziko garrantzia izan zuten.

Gaurdaino tradizioa eta berrikuntza etenik gabe uztartzen jakin duen gunea izanik, beasaindarren oraina eta historia amiltzen ditu argazki berean. Beasaingo Udalak Gipuzkoako Diputazioarekin eta Aranzadi Zientzia Elkartarekin Igartzaren berreskuratzea abiatu zuenetik ez dira gutxi beasaindarrek gune horretan kokatu eta arnasberritu dituzten adierazpen kultural eta folklorikoak.

Ez hori bakarrik, aipatu ekital-

diez landa, orotariko hitzaldi, bilkura, emanaldi, tailer, bisita gidatu, ezkontza, hileta zibil eta abar egiten baitira bertan.

## Gizarte iraultzaren isla

Denetik izan da Igartza mendeotan: bidegurutze, pasabide, lotura, hazkundearen motor, gudarako zein merkataritzarako gune estrategiko... Arabako lautada euskal kostaldearekin lotzen zuen bide nagusia Igartzako zubitik igarotzea zen gakoa.



Zentzu horretan, duela 800 urte inguru eraiki ziren Igartzako lehen dorrea eta zubia, Lazkaoko jaunak bere bigarren seme Garcia Lopezi hala aginduta, inguru guztia kontrolpean izateko.

XIII. mendearen erdialdean Agurainek, Segurak, Tolosak eta Ordiziak hiribildu-eskumena lortu eta juridikoki eratzean, kontzeju edo botere-organo berriak sortu ziren. Organootako kideak herritarren artean aukeratzen ziren eta horrek gizarte iraultza eragin zuen.

Aranzadi Zientzia Elkarteak kide Juanxo Agirre Mauleonen hitzetan, “jauntxoek eta nekazarien arteko gatazka politikoaren isla da Igartza, non nekazariak euren gainetik zeudela uste zuten jauntxoek dorretxeak eraitsi baitzituzten”.

### Egur injinerutzaren lekuko bakarra European

1200. urtean Gaztelako Erresumak Gipuzkoako haranak, Durangaldea eta Arabako lurak bereganatu zituenetik Gaztela barnetik abiatutako salgai-garraioak gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen lurralde horietan barrena.

1611n galtzada ondoko ostata –egungo Dolarea hotela– eraikitze-ko agindu zuen Isabel Lobiano Igartzako andereak. Egungo harrizko zubia garai horretan eraiki zutenaren oinarriak da. Belengo ermita ere XVI. eta XVII. mendeen artekoa dela uste da, baina ez dago horren frogaraz idatzirik.

Egungo Igartza Jauregia 1520koaren ondorengoa da, baina bi mende aurreragokoaren aztarnak ditu parean. Bertan sartzean ongi etorria



Egungo Igartza jauregia 1520koaren ondorengoa da, baina bi mende aurreragokoaren aztarnak ditu parean.

ematen dizun egurrezko patioa arkitectura mota horren adierazle bakartakoa da Euskal Herri osoan. Halarik ere, bada beste harribitxi bat jauregiaren beheko solairuan: Europa osoan ikusgai dagoen egur injinerutzaren lekuko bakarra. 1568ko presa, alegia, Albaola Itsas Ondare Erakundeak biziberritu zuena 2011n.

Errota osatzen duten hiru eraikinek ere balio handia dute. 1504. urterako jasota zegoen ehotzeko hiru pare harri zituela. Halaz ere, egungo eraikin nagusia 1740koa da. Errotarien etxebizitza du ondoan, egun Done Jakue bideko aterpetxea dena, eta apur bat atzerago turbina elektrikoaren gela.

Burdinolari buruzko lehen idatziak XV. mendekoak badira ere, guztiz eraberritu behar izan zen. Egungo eraikina (1782) Ilustrazio garaian eraikitako burdinola hidraulikoen adibi-

derik onenetakoa da. Horri esker European zehar burdina esportatzen hasi ziren euskal herritarrek Zeraingo eta Mutiloko mineraletatik abiatuta. 1860an Fábrica de Hierros San Martín Gipuzkoako lehen labe garaia sortu zuten Igartzako Ferroiek ibaian behera eginda. Hor du jatorria egungo CAF sonatuak.

Askotarako iturri izan da orain arte Igartza, eta luzerako emaria duela dirudi. Beasainek Igartza berreskuratu du eta Igartzak beasaindarrak, hortaz, garaiko jauntxoena zena herritarren zerbitzura jarri eta herriko arnagune aktibo bilakatuta. ■



Bisitatu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.

**igartza**  
monumentu multzoa

Tradizioa eta berrikuntza



**igartza**  
monumentu multzoa

www.igartza.eus | informazioa@igartza.net | ☎ 943 087 798 / 605 771 881



## Baterien alorrean aro berria hasi da



APIRILAREN 30EAN, Tesla ibilgailu elektrikoen konpainiako Elon Musk-ek Powerwall izeneko batería aurkeztu zuen, eta horrekin batera energi gordailuen alorreko lasterketari hasiera eman zion. Irargarpen garrantzitsua izan zen energi bilketari dagokionez, zalantzarik gabe. Etxe osoa energi az hornitze-ko moduko bateriez ari gara.

Muskek ez zuen bateriaren ezaugarri tekniko berri eman, oinarrian gure smartphonetako litio-ioizko pilen antzekoa dela besterik ez zuen esan. Teslak eguzkiaren indarra metatu nahi du baterietan; horretarako, Nevadan (AEB) duten lantegi erraldoian energi metagailuak eraikiko dituzte. Metagailu horiek hormetan txertatzen dira, eta 1,30 metroko altuera, 86 zentimetroko zabalera eta hamazortzi zentimetroko sakonera dute.

Oraingoz, zazpi eta hamar kWh-ko ereduak landuko dituzte, eta hurrenez hurren 3.000 eta 3.500 dolarren truke saldu. Nahi adina batería elkarrekin lotuta jar daitekeenez, eraikin oso baten berokuntza sistema presta daiteke era horretan.

Eguzkiarenaz gain, edozein iturritako energia metatzeko gai izango dira batería berriak. Eta aukera emango dute, besteak beste, energia merkeago eskaintzen den uneetan soilik kargatzeko.

Lasterketa hasi egin da honenbestez, eta seguruenik Teslak berak edo beste enpresa batek batería txikiagoak, merkeagoak eta ahalmentuagoak aurkeztuko ditu luze gabe. ■

## Burutik kendu ezin dugun abestia ezabatzeko, txikilea



GEHIENOI GERTATU ZAIGU abesti bat pare aldiz entzun eta burutik ezin kentzea hainbat orduz... edo egunez. Berriki, Reading-eko Unibertsitateko (Erresuma Batua) ikerlariak saiakera egin dute boluntario talde batekin, eta garbi ikusi dute txikilea murtzikatzeak buruan dugun horretaz "askatzen" laguntzen duela.

Momentuz musikarekin baino ez dute proba egin, baina uste dute emaitza bera lor daitekeela beste edozein pentsamendu obsesiborekin.

Eta txikilea edozein izan daiteke. Azukrerik gabekoa ere bai. ■

## Giza enbrioia genetikoki eraldatu dute lehenbiziko aldiz

Txinako Sun Yat Unibertsitatean, Junjiu Huang ikerlariak zuzendutako taldeak giza hainbat enbrioia akastunetan eraldaketa genetikoa egitea lortu du. Hala ere, emaitzak ez dira nahi bezain onak izan. Saiakerak munduko hainbat zientzialariren kritika latzak eragin ditu, bai arrazoi zientifikoengatik bai etikoengatik ere.

ttiki.com/339217

(Euskaraz)

## Umeen hazkunde grafikak berriz aztertu beharko dira

Herrialde askotan umeen altuera eta pisua arretaz behatzen da, lehen urteetan bederen. Baina horretarako erabiltzen diren erreferentziatzeko datuak orain 50 urtekoak dira, eta Osasunaren Munduko Erakundeak horiek eguneratzeko garaia heldu dela iritzi dio. Egungo umeak orain 50 urtekoak baino handiagoak dira.

ttiki.com/339218

(Frantsesez)

## Arrantzontzien energi kontsumoa hobetzeko tresneria AZTIren eskutik

Berriki jakin izan dugunez, AZTI euskal ikerketa agentziak garatutako bi tresnaren bidez (Gestoil eta Audoil), arrantzontzien urteroko energi kontsumoa %5 eta %25 artean hobetu daiteke, ontzi motaren arabera.

ttiki.com/339220

(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

# Txertoa asmatu aurreko txertoa

OTOMANDAR INPERIOA, 1718. Mary Wortley Montagu britainiar enbaxadorearen emazteak turkiarrek elgorria kontrolpean izateko erabiltzen zuten metodoa idatziz jasotzea erabaki zuen:

“Udazkeno, irailean (sic), bero handia arintzen denean, jendeak elkarri mezuak bidaltzen dizkio, senitartekoren bat elgorria harrapatzeko prest ba ote dagoen jakiteko. Horretarako bilerak antolatzen dituzte eta hamabost edo hamasei laguneko taldea biltzen denean, atsoa etortzen da, elgorri mota bikainenez betetako intxaur azala eskuan, eta zer zain irekitzea nahi duzun galdetzen dizu. Eskaintzen diozun zaina urratzen eta zabaltzen du berehala orratz handi batez. Orratzak ez du ohiko harrazka batek baino min handiagorik ematen. Ondoren orratzaren buruan sartzen den adina pozoi jartzen du zaurian, eta maskor zati batez estaltzen du. Modu horretan lauzpabost zauri irekitzen dizkio bakoitzari”.

Britainiar damak, metodoak harrituta, Ingalaterran ezarri nahi izan zuen. 1721ean Charles Maitland mediku prestigiodunari alabarekin antzeko zerbaitekin egin zezan eskatu zion. Zurrumurrua zabalduz joan zen, eta gortearaino iritsi zen. Erregetxean ere elgorria prebenitu nahi zuten, baina metodoa lehenago beste batzuekin probatzea erabaki zuten, zer gerta ere. Heriotzara kondenatutako dozena erdi preso erabili zituzten akuri. Arrakasta erabatekoa izan zen, sei presoentzat batez ere: urkamendia saihesteaz gain, handik aurrera elgorritik immunizatuta egon ziren. Emaiza onen ondoren, Jurgi II.a erregearen alaba Karolina printzesari ere tratamendu prebentiboa eman zioten.

Beraz, txerto primitibo moduko horrek funtzionatzen zuen, baina ez beti, nahita kutsatutakoen %2 ingururi gaitza gaizkitzen zitzairen eta hil egiten ziren.

Ez dakigu halako inokulatzeak egiten noiz hasi ziren Otomandar



Lady Mary Wortley Montaguk (1689-1762) elgorriaren aurkako txerto modukoa Turkiatik Ingalaterrara eramanean zuen.

Inperioan, baina ustez K.a. 200 urte ingurutik antzeko praktikak egiten ziren Asian. Txinan baztanga arina zuten gaixoei pustula lehorrak kentzen zizkieten, xehatu egiten zituzten eta hauts modukoa sudurretik sartzen omen zuten immunizatu nahi zutenek.

Eta XVIII. mende amaieran, elgorria baino baztanga zen Europarren kezka nagusia. 1796an Edward Jenner landa-mediku ingelesa konturatu zen esne-biltzaileek tarteka “behibaztanga” modukoa harrapatzen zutela etengabe animalia horien ondoan egoteagatik, eta horri esker, gero ez zutela ohiko baztangarik harrapatzen. Behi-baztanga Sarah Nelmes abeltzainari hartu eta James Phipps 8 urteko mutikoari sartu zion. Eta, hala, lehen txertoa asmatu zuen. Ofizialki. ■


## Arrastoak

### Ajearen aurkako 2.000 urteko erremedioa

OXIRRINKO (Egipto) hirian antzinaroko 500.000 dokumentu inguru aurkitu zituzten 1890ean. Papiroetako testuak pixkanaka itzultzen jarraitzen dute mende eta laurden geroago, eta Oxfordeko eta Londresko Collegeko adituek azken itzulpenen berri eman dute berriki.

Duela 1.900 urte idatzitako testu batean ajearen aurkako erremedioa nabarmentzen da. Alkohol gehiegikerien ondorioak arintzeko, gainera, ez zen ezer hartu behar; nahikoa zen “Chamaedaphne” (*Ruscus Racemosus* L) zuhaixkaren hostoz egindako lepokoa gainean eramatea.

Oxirrinkoko papiroetan beste errezeta asko bildu zituzten: hemorroideen aurkakoa, gangrena arintzekoa, hagineta mina saihestea... Baina ajearen aurkakoa izango zen ziurrenik praktikoenetakoa, edateko ur eskaia eraginda, alkohola edatea beste erremediorik ez baitzuten izaten maiz. ■



OXYRHYNCHUS PAPIRY

Oxirrinkoko papiro ugarietako bat.



## Elkarri eman

HAMAIA ERATAKOAK dira loreak. Landarearen bizitzaren arrazoia laburbiltzen dute, eta bide eman. Landareak ugalketa du helburua eta horixe da lorearen izatearen arrazoia. Lorean gertatzen den bi sexuen arteko nahasketak fruitua ekarriko du, hazien edukiontzia, alegia.

Nahasketa hori burutzeko iker-tu, garatu eta diseinatu du espezie bakoitzak bere lorea. Milaka urteko lanaren emaitza bada ere, etengabe berritzen ari dira. I+G+B. Etorkizunean ere bere espezieko ondorengoak izango direla bermatzeko atergabeko egokitzea.

Landareak hartutako lan hori sinestezinezko emaitzak ematen ari da. Ikusgarrienetako bat lore-elkartuak edo konposatuak dituztenen familiakoa da. Ezagunenak bitxilorea (*Bellis perennis*) eta ekilorea (*Helianthus annuus*) izango dira. Margarita baten tankera duten loreak dira. Lore hauek benetan lore multzoak dira, infloreszentziak, botanikarien hizkeran. Konposatuaren lore multzoak borobilak izan ohi dira, eta bi eratako loreak dituzte: kanpoko aldean kolore deigarria duten lore luzexkak —maite nau, ez nau maite, maite nau, ez...—, eta barruko aldea betebete osatzen duten lore tikiak.

Maite bagaitu edo ez, jar gaitezten erlearen tokian: hegan dabil, hara-hona, eta lore borobil ikus-



JAKOBA ERREKONDO

garriak urrutitik antzemango ditu. Kanpoko lore horiek biltzen duten borobila, nora jo behar duenaren helmuga, arkulariari diana bezain argi azalduko zaio. Borobila ikusgarria egiten duten kanpoko lore horiek antzuak dira. Bere egin beharra beste loreetara erleak ekartzeko multzoa erakargarri egitea da: luzatu eta kolorez janzten dira. Antzutzeko prest daude, aldameneko loreak ernaltu eta haziak eman ditzaten.

Konposatuez gain beste zenbait landarek ere erabiltzen dute estrategia hori: hortentsiak (*Hydrangea sp.*), *Viburnum opulus* gaukarraren senideek, eta abar. Lore batzuk erakargarri edo apeu soilak dira. Bereari uko, besteei emana. Elkar emana. Elkar hartzeko.

Landareak hartutako lan horrek sinestezinezko emaitzak ematen ari da, eta emango dituenak... ■

## 6

**Landutako landareak** kultura dira. Tokian tokikoak, milaka urtean landuz egokitu direnak. Bertarako aproposak diren aldaerak. Ez dago antzeko liburutegirik, datutegirik, ondare multzorik.

Lehengo mendean ia egunero landare aldaera edo barietate bat galdu dela uste da, 30.000 inguru. Gaur egun, noski, asko aurreratu dugu, alde ederreko kultuak gara, ikasiak, jasoak... Gaur egun sei orduro galtzen da aldaera bat. Atzo lau. Gaur lau. Bihar lau. ■



- Lorezaintza proiektuak
- Mantentze zerbitzua
- Landare iraunkorren erabilpena eta salmenta:
- Baratzeko landare ekologikoak
- Ezagutu eta aukera ezazu Urbina Garden-en.
- Legutio ☎ 945 40 34 23



☎ 609 42 45 47 • lorelan@euskalnet.net





## Bigarren argitaraldia martxan

Dagoeneko martxan da Jakoba Errekondoren *Bizi Baratzea* liburuaren bigarren argitaraldia. Liburua aurkeztu eta egun gutxira, Euskal Herriko saltokietan liburutik salduena izatera iritsi da, bigarren edizioaren argitaratzea eraginez.

*Bizi Baratzea* liburuaren aurrerapena ikusgai  
[www.argia.eus/baratzee-lagina](http://www.argia.eus/baratzee-lagina) helbidean.



### Eskuratu liburua sinaturik

*Bizi Baratzea* ARGIAN erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzuekin jaso dezakezu liburua.

Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikusitako ondoko zutabean non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

### Eskaerak

Salneurria: 23 €  
Harpidedunentzat: 19,50 €

☎ 943 371545  
[www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda)  
[denda@argia.eus](mailto:denda@argia.eus)



🐦 @bizibaratzea · Informazio gehiago: [www.argia.eus/bizi-baratzee](http://www.argia.eus/bizi-baratzee)

## AURKEZPEN HITZALDIAK

### herriz herri

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan. Hauek dira ondorengo hitzorduak:

#### **Maiatzak 14** **Astigarraga**

Loraldi loraetxean,  
18:30ean

#### **Maiatzak 16** **Ataun**

Azoka ekologikoan,  
12:30ean

#### **Maiatzak 18** **Iruñea**

Elkar liburu-dendan,  
18:30ean

#### **Maiatzak 19** **Berrobi**

Kultur Etxean, 19:00etan

#### **Maiatzak 21** **Etxarri Aranatz**

Liburutegian, 19:00etan

#### **Maiatzak 23** **Hernani**

Karabelekoren egoitzan,  
11:00etan.

#### **Maiatzak 23** **Bedaio**

Elkartean, 18:00etan

### ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratu duzu.

[sustapena@argia.com](mailto:sustapena@argia.com)  
☎ 943 371 545



# Euskarazko fikzioaren basamortuko oasia

Hau ez da *Goenkale*-ren aldeko harenga, baina ETB1eko telesaila egon izan ez balitz, sortu egin beharko litzateke. Hasteko, ez dagoelako iraupen luzeko euskarazko beste fikziorik gure telebistan eta, bestetik, fikzio barik ez dagoelako bizitzaren antz handiena daukan errealitate asmatua euskaraz entzuteko aukerarik, hau da, ahozkotik gertuen dagoen euskararik entzuteko aukerarik. Zoritxarrez, ordea, euskaraz zegoen fikziozko serie bakarra bertan behera lagatzea erabaki du ETBk.

| MARIJO DEOGRACIAS |

1994KO URRIAREN 3AN eman zuen lehenengoz ETBk *Goenkale* serie fikzionatua, BBKk Galesko telebistarako ekoizten zuen *Pobol y Cwm* (Haraneko jendea) telesailari segika. Antzekotasunak badira bien artean: hizkuntza gutxitua, herri txiki bateko istorioak, eta telebista publikoan hitzun komunitate zehatz bati zuzenduta. Aldiz, ez dago hain argi galestarren artean ere telesaileko hizkuntzaren inguruan eztabaidarik izan zen. Nork ez du entzun, edo esan, *Goenkale*-n

hitz egiten den moduan ez dela inon berba egiten? Edo, arraldetarren berbakera ez dela naturala? “Horiek topikoak izaten dira, ezinezkoa da kaleko hizkuntza erabiltzea telebistan; hara dihoana ikasitako testu batekin doa beti eta kalekoa inprobisazio hutsa da”, dio Jose Luis Aranguren *Txiliku*-k, *Goenkale*-n platoko gidoi arduradun eta zuzentzaile izan denak azkeneko bederatzia urteetan. Orduan zein erreferentzia erabiltzen dira bada, horrelako baieztapen borobilak

egiteko? Bea Zabalondok, EHuko irakasle eta *Goenkale*-ko elkarrizketasortzaile izandakoak, argi dauka: “Inongo telebistan ez da hitz egiten kalean hitz egiten den bezala; ez dakit zergatik jartzen ditugun antiojo bereziak euskarazko telebistarako eta euskarazko fikziorako. Nire inpresioa da oso espainolak garela, oso ondo menperatzen dugula espainol mundua, baina gero euskarara etortzen garenean, galdu egiten dugula pertzepzio hori”.

Pausoka ekoiztetxeak abiatutako telesailak grabatzeari utzi zion joan den otsailean. Urte amaieran bukatuko da 1994an hasitako telesaila.



*Goenkale* egiteko erabakia hartu zenean ere, kezka hori bazen. Alegia, “euskara ibilbide oso laburra egina zen ikus-entzunezkoen munduan, zaila gertatzen zen euskal hiztunen hizkeraren eta telebistak hiztun horiei eskaintzen zien euskara-ereduaren arteko identifikazioa lortzea”. Holaxe jasota utzi zuen Anjel Lertxundik *Goenkale* hamaseigarrenean ari zela osatu zuten *Sutondo berria* txostenean. Hasierako taldeak nahi zuen “jendeak ia oharkabea jasoko zukeen hizkera naturala” lortzea. Erabaki zuten “garatzen ziren kontakizunen arabera tonuak lantzea”. Lan horretan bertan esaten denez, “aktoreak batuan jardun arren, ereduak bazuen zerbait hurbileko bihurtzen zuena, zerbait hori liburutako eredu zurrundetarik urrutiratu eta kalera irten izanak zekarren, seguru asko”. Helburu horrekin aritu dira lanean hasieratik, Zabalondok gogoratu digun moduan, hizkuntzak ahozkoak baitira, “ez dezagun ahaztu”.

“Oinarria beti izan da elkarriketa eta helburua, ahozkoa”, Txilikuk dioenez. Euskal Herri osorako produktua sortu behar zuten eta “ahal zela, hizkuntzaren aberastasun guztiak ateraz”. Horrek, ardura handiz jokatzera behartu ditu elkarriketa-sortzaileak, baita hitanoaren formak zaintzera, eta euskalki guztiak egon zitezen kontuan izatera ere. Nola osatu hortaz, Iparraldean eta Hegoaldean, bizkaieraren eremuan eta gipuzkerarenean, euskarazko elkarriketa natural eta sinesgarriak? Onartuta hizkuntzak joan behar duela interpretazioaren

**“Marrazki bizidunetan hazitako gazteek gero ez dute jarraikortasunik izan eta eten horrek paralizatu egiten ditu, baita zinema euskaraz ikusteko ere”**

Bea Zabalondo,  
EHUko irakaslea

mende eta pertsonaiaren mailan. Horixe dio Txilikuk. Inportantea *Goenkale*-n erregistroa dela-eta pertsonaia batek eduki behar dituela, testuinguruaren arabera, erregistro diferenteak. “Aldaketa hori da interesantea”. Alegia, “pertsona bat ezin duzula izan behartutako hizkuntza bat egiten luzaro. Bizkaitarra bada, bizkaitarra da; ama bizkaitarra badauka eta alaba zera baino gipuzkoarra, agerian geratzen da”. Eta *Goenkale*-k zerbait erakutsi badu izan da hainbat pertsonaia erregistro diferenteak erabiltzeko gai direla eta balio izan du, Zabalondok azpi-

**“Ikasleei hikako formak entzuteak balio izan diete, hasteko, existitzen direla jakiteko, eta era berean, erabileraren beldurra kentzeko”**

Leire Narbaiza,  
euskara irakaslea

marratzen duenez, “ikusteko gure hizkuntzaren aberastasuna noraino iritsi daitekeen erregistroetan eta fikzioa egiteko balio duela”.

Hala, hainbat eta hainbat esamolde jaso dira *Goenkale*-tik. Maria Luisarenak, akaso, gogoangarrienak, baina hitanoa erabiltzen ere asmatu zuten. Txapasen pertsonaia “Hori egina zagon!” esaten hasi zenekoa iraultza izan zen telebistan. Egin kontu: 206. atalean Iker izeneko pertsonaia esaldi horixe erabili zuen batean, Txapasek berak zera bota zion: “Hi, esaldi hori erregistratuta zago... nire-nirea duk!”. Ezezaguna zen tratamendu modua Euskal Herri osora zabaltzea lortu du *Goenkale*-k bai eta euskalkietako lexikoa ezagutzera eman ere. Eta, horrek, EHUko irakasleak dioen bezala, balio izan du Euskal Herri osoko gazteek beste leku batzuetako euskarak ikus ditzaten, “euskara diferenteak bisibilizatzeko”.

Bat dator horretan Leire Narbaiza euskara irakaslea ere. “Ikasleei hikako formak entzuteak balio izan diete, hasteko, existitzen direla jakiteko, eta era berean, erabileraren beldurra kentzeko”.

*Goenkale*-ren aurretik egin ziren fikziozko beste serieak ere gogoan ditu Narbaizak, *Bi eta bat* eta *Hau da hau*, adibidez. “Kaleko hizkera edo euskalkietatik gertuago” zeuden, baina zerabilten euskara oso zurruna zela dio, “oso literarioak esamoldeak, oso urrunekoa, beste euskalki batetik abiatuta baleude bezala. Oso ahozkoa egin nahi zuten, baina oso idatzizkoa zen, modu batera esanda, oso liburu”. *Goenkale*-k, berriz, “eragin handia izan du, espresio



**TALLERES  
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000  
Fresadora: 10.000 x 3.500  
Barrenatze mekanizatua

**Talleres Mitxelena, S.Coop.**

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

[www.talleresmitxelena.com](http://www.talleresmitxelena.com)



MIZONATV.COM



MIZONATV.COM

MIZONATV.COM



'Goenkale', fikzio lan gisa, ahazkoaren aniztasuna telebistara eramaten saiatu da. Hala dio Bea Zabalondo 'Goenkale'-ko elkarrizketa sortzaile izandakoak: "Gramatika da hizkuntzaren araua, baina gero fikzioa errealitatearen antzekotasun handien daukan neurria ekarri behar da. Telebista eta zinea, oro har, beti dira errealitatearen errepresentazioa, ez dira errealitatea; beraz, sekula ez da hitz egiten kalean egiten den bezala. Baina hori egin behar da sinesgarri, eraginkor eta era naturalenean".

asko zabaldu ditu eta, euskara maila desberdinak erabili izan ditu eta hori lagungarria izan da, adibidez, B mailako ikasleak erakartzeko, trama jarraitzen laguntzen zielako, adibidez, Leonor batek gaztelaniaz". Euskara irakaslearen iritziz, "beti izan da eraginkorra, eta batez ere erreferentziala zeren ez dago fikzio-rik euskaraz".

## Basamortua eta pobrezia

Narbaizak azpimarratu duen horixe larria da oso; izan ere, Txilikuk dioen bezala, "euskarak betetzen ez dituen tartekak beste hizkuntza batek okupatzen ditu eta momentu honetan ez daukagu besterik euskal telebistan". Are, 2005ean Zabalondok ikerketa lan bat egin zuen non ikusi zuten gazteek jotzen zutela kate espainiarretara euskaraz ez zutelako topatzen eurentzako fikzio egokirik. "Oso nabarmena da, oso sintomati-

koa, marrazki bizidunekin hazitako gazteei entzutea esaten eurentzat *Doraemon* eta *Shin Chan* euskaraz direla, hau da, beraien lehenengo errepresentazioa euskaraz dela". Baina "marrazki bizidunetan hazitako gazteek gero ez dute jarraikortasunik izan eta eten horrek paralizatu

egiten ditu, baita zinema euskaraz ikusteko ere". EHUKo irakasleak dioenez, ez gara ohartzen "euskaraz ikusteko ohitura falta horrek zelako faktura ekartzen digun". Bere ustez, transmisio kate horretarako gaur eguneko tresnak jarri behar dira: "Fikzioa da garrantzitsuenetako bat eta euskaraz hutsunerik handiena dagoen eremua da".

Bada, gainera, beste faktore bat, Txilikuk eta Zabalondok biek ala biek azpimarratu dutena. Euskaldun berrientzat edo eskolan euskaldundu direnentzat euskarazko fikziozko serieek egiten duten transmisio lana. Izan ere, etxetik euskara jaso duenarentzat eta euskaraz bizi denarentzat natural sartu daitekeen erregistro multzoa izanik, "eskolan euskaldundutakoak diren eta erregistro akademikoa bakarrik dutenentzat euskara entzun eta jasotzeko bidea da ikus-entzunezko

**"Euskaldunen %40 badira ama hizkuntza euskara ez dutenak, non entzungo dute erreferentziala izango zaien euskara? Hori fikzioak landu behar du, irratia eta telebistak"**

J. L. Aranguren, Txiliku Goenkaleko zuzentzaile ohia

fikzioa eta hori da behar dena, euskara ez baita bakarrik akademikoa”. “Egin kontu –diosku Txilikuk–, euskaldunen %40 badira ama hizkuntza euskara ez dutenak, non entzungo dute erreferentziala izango zaien euskara? Hori fikzioak landu behar du, irratiak eta telebistak egin behar dute. Entzunaz bakarrik dago bizirik hizkuntza!”. “Bizitzaren antzik handiena daukan errealitate asmatua, idatzizko interpretatua da fikzioa. Eta gu pobre gaude alde horretatik”, azpimarratu du Txilikuk.

### Datu base osoa ikerketarako

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuak, 2011n, *Goenkale*-ren elkarrizketekin corpusa osotzea erabaki zuen. 2011ra arteko 805.796 hizketaaldi biltzen ditu, ordura arte ETB1ek eman zituen 2.418 atalak. Egunotan, datu basea eguneratzekoak ei dira.

Lanerako tresna ezinbestekoa da *Goenkale*-ren corpusa. Txilikuk dioenez, “ez dakigu zer hizkuntza daukagun landua. Bikoizketan egin den lan guztia ez dago inon jasota eta erreferentziak galduta dauzkagu”. Egindako lan horri jarraitpena ematea dagokigu: ikerketa arloari corpusarekin lan egitea eta telebistari euskarazko fikzioak sustatzea. Zabalondok dioen bezala, “euskaraz bizi nahi badugu, erabilgarria izan dadila, jar dezagun hori ikusgarri eta entzungarri. Euskal telebista publikoari tokatzen zaio euskarazko fikzioa egitea eta bideak jarri beharko dira horretarako”.

1994an ausartu ziren erronka guztiei aurre egiten, artean telebistako profesionalik apenas zegoela. Gaur egun egoera guztiz bestelakoa da, eta *Goenkale*-k, eta aurretik egin ziren euskarazko fikziozko beste serieek, erakutsi dute bidea. Ez dadila alferrik galdu egindako lan eskerga. Txapasek zioen bezala, zailena “egina zagon” eta! ■

# SINTONIZATU INFO7 IRRATIA!

FREKUENTZIAK

|                      |                         |
|----------------------|-------------------------|
| DONOSTIALDEA 99.2 FM | UROLA KOSTA 107.1FM     |
| TOLOSALDEA 97.7FM    | BILBO HANDIA 102.3FM    |
| GOIERRI 106.0FM      | DURANGALDEA 100.7FM     |
| BERGARA 100.2FM      | OTXANDIO 90.4FM         |
| ARRASATE 106.1FM     | IRUÑERRIA 106.7FM       |
| UROLA 107.7FM        | GASTEIZ-LAUTADA 103.8FM |

Zurekin sintonian

INFO



IRRATIA

ZURE AHOTSA



## Hizkuntza aukeratzeko askatasuna bermatu nahi izatea... komeni denean

ESPAINIAKO Hezkuntza Ministerioak helegitea jarri du Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusian. Epailearen erabakiaren aurka egin nahi du, Kataluniako hezkuntza publikoan, aurrematrikulazioetan, hizkuntza aukeratzeari nola agertzen den ez dagoelako ados. Ekaineko aurrematrikulazioa ez omen dute oztopatu nahi, baina Hezkuntza Ministerioak eskatu du epe bat uzteko gurasoek haien seme-alabak zein hizkuntzatan ikastea nahi duten esan dezaten. Kataluniako PPK eta Ciudadansek babestu dute Ministerioaren eskaera, gainerako alderdiek (CiU, ERC, PSC, ICV-EUiA eta CUP) aurkako iritzia eman dute.

Beste behin hizkuntza aukeratzeko askatasuna mahai gainean. Katalunian 1970eko hamarkadaren bukaeran eta 1980koaren hasieran eztabaida handia izan zuten eskolako hizkuntza ereduari buruz, ea ikasleen lehen hizkuntza bermatu behar zen

ala ohiko hizkuntzatzat katalana hartu behar zen. 1960-70 hamarkadetan milioi bat andaluziar eta extremaduratar heldu ziren (geroago iritsiko zen bigarren atzerritar aldia). Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan katalana hizkuntza ardatz hartzea erabaki zen, gaztelania ikasgaia baino ez zen izango. Jendarte katalanaren gehiengoaren ustez, orduan hartutako erabakiek ondorio onak baino ez dituzte izan. Milaka katalan hiztun atera dira eskoleetatik, eta batez ere bertakoen, Espainiako Estatutik joandakoen eta geroago urrutiagotik heldutakoen artean batasun soziala eta elkarbizitza bideratzeko gakoetako bat izan da. Esan beharrik ez dago eskolako hizkuntza ereduak gaztelaniaren bizirautea ez duela arriskuan jarri.

Valentziako Gobernuak ere egin zuen antzeko saiakera 2014ko hondarrean. Ikastetxeetako gurasoei haien haurrentzat zein eskola-hiz-



Iruñeko Udalak ez du onartzen aurrematrikulazioan haur eskolarako hizkuntzaz galdetzea.

kuntza nahi zuten galdetu zien, aukerari gaztelania/ingelesa eta valentziera/ingelesa jarritz.

Iruñean 18 haur eskola publiko daude, bi baino ez euskaraz eta biak Txantrea auzoan. Gurasoek askotan eskatu dute aurrematrikulazio garaian galdetzeko zein hizkuntzatan nahi dituzten eskolak haurrentzat, eta zein auzotan. 1.399 plazatik 164 dira euskaraz eta gurasoek egindako kontaktaren arabera 466 haur euskarazkoan matrikulatuko lituzkete.

Galdetzearena, komenentziaren arabera.

## TERMOMETROA • EKONOMIAREN TALAIAN

### Krisi garaiko soldatak

GOBERNUETATIK errekupeazio ekonomikoaz hitz egiten dutenek badakite gezurretan ari direla. Hemen soilik kapital-errentak baino ez dira hobetzen ari krisiaren ondotik, eta bitartean, ezberdintasun soziala handitzen ari da, soldaten arteko leizea nola. Egutetik egunera sakonagoa, eta beraz eskandalagarriagoa den leizea. Datu ofizialetara jo besterik ez dugu hori ikusteko.

2014an zuzendaritzetako kideen soldatak %10 baino gehiago igo ziren eta enplegatuenak %0,6 jaitsi. 2013an, IBEX 35ean dauden enpresetan ondoen ordaindutako pertsonen soldataren batez bestekoa, konpainia bereko enplegatuek kobratzen zutenaren halako 75 zen. 2014an berriz, ongien ordaindutakoek –goi-karguetako zuzendari eta kontseilariak– langileek baino 104 aldiz gehiago jaso zuten. Desberdintasuna 75etik 104ra igo da beraz. Repsoleko Josu Jon Imaz, Espainiako Estatuan soldata handienetakoa duten 50 pertsonen artean dago; bada, 2014an 2,10 milioi euro irabazi zituen. Txapeldunak berriz, Juan Maria Nin Caixabankeko presidentea, 16,38 milioi irabazi zituen. Eta Jazzteko exekutibo nagusiak bere langileek baino 1.000 aldiz gehiago. Horri guztiari batu

behar zaio euren pentsioentzat egiten diren diru-ekarpenak. 2014an IBEXeko enpresetako 72 kontseilariak 500 milioi euro pilatu zituzten. Bitartean, Espainiako Estatuko soldatadunen %40ak ez du lanbide arteko gutxieneko soldata irabazten: aurten 648,60 euro kobratuko dituzte hilean, 9.800,40 euro urte osoan.

Nola mantendu daiteke hain injustua eta ezberdina den gizartea? Errekuperazio ekonomikoaz hitz egiten dutenak dira IBEX 35eko enpresetan parte hartzen duten berberak. Rajoyrekin edo Moncloarekin hitz egiten duten horietatik dira, orain egun batzuk egin zuten moduan, laudatzeko eta animatzeko segi dezan prekaritatearen bidez soldaten arteko leizea eta desberdintasuna handitzen. Klase borroka ez da iraganezko kontua. Gure herri eta enpresetan daukagu. Ez badugu nahi egoera are larriagoa izatea, sistema kapitalista aldatu eta beste gizarte eredu bat eraikitzea beste aukerarik ez daukagu, aberastasunaren bidezko banaketa lehenetsiko duena, justizia, berdintasun eta elkartasunean oinarritua.

Juan Mari Arregi

# Mamu xenofoboak astintzen

EAJk eta PPK kontra bozkatu arren ekainean onartuko den Etxebizitzaren Legeak etxebizitza eskubide subjektiboa aurreikustea ez du gustuko Jaurlaritzak –alegia, alokairua ordaindu ezin dutenei administrazioak etxebizitza bermatu behar izatea–. Erkorekak eman duen arrazoi nagusietakoa da horrek “masiboki erakarriko” duela jendea munduko leku guztietatik.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

BEHIN EZ, bitan errepikatu du argudioa, “Euskadira iristen den edonori lehenengo minututik” etxebizitza izateko eskubidea bermatu beharko zaiola azpimarratuz. Larriak dira Josu Erkorekaren hitzak, Eusko Jaurlaritzaren bozeramailea dela aintzat hartuta.

Batetik, esan duena ez da egia, legeak eskatuko dituen baldintzen artean dagoelako Etxebiden lau urtez izena emanda egotea –eta beraz, urte batzuk eramatea EAEn errolatuta–. Bestetik, hona datorrenak, horretarako duen arrazoiak duela ere, gainerako herritarron eskubide eta betebeharrak berak baditu, zein da arazoa? Javier Maroto Gasteizko alkatea gogoratzen du, etorkinak gizarte-prestazioetatik bizitzera datozela dioenean. Herritar gehienek –eta datuek hala diote– lana eta bizimodu duina lortzea dute helburu, ez iruzurren eta administrazioa-



**Ez omen da sentsibiltate kontua, baina bada lehentasun kontua, eta kausalitatez, gizartean egoera ahulenean daudenak inoiz ez dira lehentasun.**

ren bizkar bizitzea. Horregatik, herritarron artean mesfidantza areagotzeko baino balio ez duten halako diskurtsoak faltsuak eta arriskutsuak izateaz gain, iraingarriak ere badira.

Beharbada, hezkuntza eta osasun publiko eta unibertsala kendu beharko genituzke, urtetan lortutako lan baldintzak desegin, ongizate gizartea kolokan jarri... ez daitezen masiboki etorri dugun pagotxaz aprobetxatzen.

Legea betetzeak dirutza suposatuko lukeela gaineratu du bozeramaileak, kontra agertzea ez dela “sentsibiltate kontua”, etxebizitza arloan plangintza sozial “paregabea” duelako Jaurlaritzak. EAJ, dena den, etxea hutsik mantentzen duten jabeek zergak igotzearen aurka agertu da, baita jendea kale-ratzetik bankuek lortutako etxeak desjabetu eta alokairu sozialerako erabiltzearen kontra ere. Ez omen da sentsibiltate kontua, baina bada lehentasun kontua (AHTrako bada-go dirua), eta kausalitatez, gizartean egoera ahulenean daudenak inoiz ez dira lehentasun. ■

## Etxebizitza eskubidea bermatzeko lehen harria

ETXEBIZITZAREN LEGEA onartuko du EAEko Legebiltzarrak datozen hilabeteetan EH Bildu, PSE-EE eta UPyDren babesarekin eta EAJ eta PPren kontrako botoekin. Bi urte daramatzate Gasteizko parlamentuko etxebizitza lantaldeak eztabaidatzen, PSEk lege proposamena aurkeztu ondotik, eta txostena bukatu berri dute, hasierako proposamenari zenbait aldaketa sartuta.

Lege berriaren puntu deigarrietakoa “etxebizitza eskubide sub-

jektiboa” aitortzea da. Hau da, etxebaten alokairua ordaindu ezin duten pertsonen eskubidea izango dutela epaitegietan etxebizitza eskatzeko eta administrazioak eskubide hori bermatu beharko duela. Eskubidea progresiboki gauzatuko da.

Legeak aurreikusten duen beste neurri bat etxe hutsei kanon bat ezartzea da. Bi urte baino gehiago hutsik baldin badago, metro koadroko hamar euro eskatuko zaizkio jabeari urtean. Eta etxeak

hutsik jarraitzen duen urte bakoitzeko, %10 igoko da kanon hori.

Derrigorrezko alokairua dekretu bidez ezartzeko aukera ere aurreikusten du legeak, baita Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eraikitzen diren etxebizitza publikoen %80 alokairura bideratzea ere, legea indarrean jartzen den momentutik aurrera lehen bost urtetan.

**Gorka Bereziartua  
Mitxelena**



# «Utzi erregaiak lurpean», beranduegi izan baino lehen

Londresko *The Guardian* egunkariak bere ildo estrategikoen artean lehenetsi izanak oihartzun berezia emango dio “*Keep it in the ground*” (Utzi erregaiak lurpean) kanpainari. Dagoeneko nozitzen dugun klimaren berotzea katastrofiko gertatu ez dadin, petrolio, gas eta ikatza erauzten dituzten konpainietatik dirua ateratzea sustatzen du.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

BILIOIKA DOLAR BALIO DUTEN erregaiak daude lurpean bertan utzi behar ditugunak geure on beharrez”. Alan Rusbridger zuzendariaren esaldi horretan laburbiltzen da *The Guardian* egunkaria lerro estrategikotzat lantzen hasi den “*Keep it in the Ground*” kanpaina, paperean artikulua eta erreportaje sakon zabalez eta interneten multimedia aberatsuz hornitua.

“Alan Rusbridger zuzendariak borrokarako deia egin dio taldeari eta desafioa ipini: ‘Klimaren aldaketaz informazioa egiteko modu berririk aurkitzeko gai izango ote zarete?’ Azaldu die munduan kontatzeko dagoen gertakizunik garrantzitsuenaren aurrean gaudela eta dagoeneko ezagutzen ditugun erregai fosil gehienak lurpean utzi beharra daukagula. Sei hilabetetan lortuko al dute irakurleak konprometitzea bide horretan?’”.

*The Guardian*en lehenbiziko idatzi handietakoa izan da Naomi Kleinen azken liburua (“*This changes everything*”, Honek dena aldatzen du) sarrera. Bertan Kleinek, aitortu ondoren klimaren aldaketari luzaz behar baino garrantzia txikiagoa eman diola, irakurlea jartzen du aldaketa historiko baten aurrean: klimaren berotzeak dena aldatuko du, baina hori eragozteko edo gutxienez zerbait kontrolatzeko

hartu beharreko erabakiek ere dena aldatu dezakete, politikan bezala ekonomian edo mundu mailako justizian gauzak egiteko modu hobeak sortuz.

“*Keep it in the Ground*” kanpainaren inspirazio iturri nagusia da AEBetan Bill McKibben ekologistak 2012an abian jarritako 350.org mugimendua. Milioiko 350 karbono zati *–350 parts per million–*, kopuru hori ezarri zuen mugatzat NASAko zientzialari James E. Hansenek 2007an: Lurraren eguratsean hori baino karbono gehiago egoiteak markatzen du bizitza gaur eza gutzen dugun moduan iraun ezin izatea. 1988an gaingitu zuen Lurra 350ko kopurua, gaur 400 inguruan gabilta.

350.orgek ezer baino lehen kontu zehatzak ateratzea proposatzen du (“*Do the maths*”). Gakoa: erregaiak ekoizten dituzten konpainiek beren erreserbetan dauzkatala munduak kontsumitu beharko lituzkeen erregaiak bider bost. Ondorioz, lortu beharra daukagula horien %80 lurpean uztea.

Hiru zifra xumek azaltzen dute zergatia. Hasteko, 2°C: munduko gobernu gehienek onartzen dute arriskutsua izango dela klima 2 gradu baino gehiagoz berotzea eta dagoeneko 0,8 berotu dugu, espero ziren baino ondorio latzagoak era-

350.org erakundearen Australiako gunetik hartutako argazkian, abenduan Camberra hiriburuan egindako elkarretaratzea: otsailan burutuko zen mundu mailako ekintza eguna sustatzeaz gain, eskuetako afixetan erakusten dute bertako hainbat unibertsitate, udal eta fundazioek dagoeneko atera dituztela diruak erregai fosilak ustiatzen dituzten korporazioetatik eta horiei lotutako inbertsio funtsetatik. Britainia Handian berriketan Ingalaterrako eliza anglikanoak erabaki du petrolio enpresen akzioetan zeuzkan 12 milioi librak (16 milioi euro) saltzea. Suedian Lidköping hiriko udalak petrolio konpainien akzioetan zeuzkan 20 milioi koroak (2,1 milioi euro) saldu ditu apirilean. Erregaietan ez inbertitzeko kanpaina herrialde txiroagoetara ere iritsi da, Afrikara bezala Asiara. Denen artean berotzen ari dira giroa Parisen irailean burutuko den CO21 klimaren gailurra epelkeriatan ito ez dadin.

ginez. Artikoak galdu du udan eduki ohi zuen izotzaren herena, itsasoaren azidotetasuna %30 handitu da, nabaritzen dira eraginak uholde eta lehorteean.

Bigarren zifra: 565 gigatona. Gehienez, erregai-karbono kopuru hori kontsumitu dezakegu tenperatura 2°C baino gehiago igo gabe. Gehiegi erretzen dugunaren inertziaz 0,8°C gehiago berotuko dugu seguru. Gehituz dagoeneko berotutako beste 0,8°C, bi graduen helmugara iristeko bidearen hiru laurdenak korritu ditugu.

Hirugarrenik, 2.795 gigatona. Erregai putzu hori daukate erreserbatan bere jabe diren enpresa eta estatuek. Urtean 31 gigatona kontsumitzen ari garenez, 16 urtetan errea izango dugu Lurra 2°C-z berotzeko adina. Horra nola heldu garen gizakiok ataka gaitzera.

## Gure dirurik ez petroliozaletxi

Berandu da. Bill McKibbenk mezu katastrofista aspaldi eman zuen, 2007an *Warning on Warming* (Beroketaz ohartarazten) plazaratuta. Urteotan munduko agintariek lehengo bidetik segitu dutenez, orain berandu da beroketa gelditzea. Kaltearen zati handi bat mar txan dago, ikusten ari gara urtetik urtera larriagotzen. Orain jokoan dagoena da beroketa ez suertatzea



erabat katastrofiko. Horregatik sartu da kanpainan.

AEBetako hiri guztiak korritu ditu autobusez herritarrei proposatzeko dirua atera dezatela erregaiek ekoizten dituzten konpainietatik: “*Divestment*”. Erregaien ustiapenarekin zerikusirik daukaten konpainietan eduki ditzakegun aurrezki edo inbertsioak saldu eta itzea.

Amerikar unibertsitateetan hasi dira presio egiten, inbertsio horiek eteteko. Udal eta lekuko administrazioekin ere ari dira, eliza eta beste elkarteekin bezala. “Ez du zentzurik inbertitzea konpainia horietan edo dirua uzten dieten pentsio funtsetan, mundua hondamendira daramaten horien eskuetatik erretiratu behar ditugu diruak. Erregai

fosiletan ari diren konpainiok ez ditu ezerk mugiaraziko diruak ez bada. (...) Horrela amaitu zuen munduak Hego Afrikako apartheid sistema, horrela espero dugu gertatzea klimaren krisian”.

Ametsez ez, helburu praktikoez arduratzen da McKibben: “Kostatu zait konturatzea borroka hau ez dela sekula erabakiko justiziaren edo arrazoiaren zelaian. Eztabaida irabazita daukagu, baina hori ez da garrantzizkoena: borroka gehienak bezala, hau ere botere borroka da”. Eta Europara iritsi da.

Gogoratzen Yasuni erreserbarena, Ekuadorren? Orain, erregaiek lurpean uzteko proposamena ez da dagoeneko ekologista, indigenen maitale edo ezkertiar utopikoen

eskaria. “*Keep it in the Ground*” kanpainari aparteko bultzada emango dio European *The Guardian*ek bereganatu izanak.

Baina kazetaritzak orain arte ez du asmatu klimaren krisia gizartearengana helarazten, zuzendariak aitortu duenez: “Kazetaritzak atzera begirako ispilu moduan jokatu ohi du. Nahiago dugu gertatu denaz aritzea, aurrean daukagunaz baino. Hobesten ditugu gertakizun berezi eta denen bistan daudenak, egunerokoak eta ezkutuan diren gainetik”.

Egia da jazotzen ari direla gauza oso bereziak, baina mantsoegi gertatzen dira, edo kazetarietarako ikusezinegiak dira, lanera bidean berripapera leitzen duen irakurle presatuarentzako. Horregatik, oso gutxitan da lehen albiste Lurraren klima krisia. Aldaketak azkarregi ari dira gertatzen gizakiaren ongizatearentzako, baina mantsoegi kazetari eta irakurleentzako.

*The Guardian*eko zuzendariak laburbiltzen du kanpaina: “Datorren eztabaidan bi gauza daude jokoan. Bat, edo gobernuak gai dira arazoa kontrolatzeko, edo bestela hasten dira prebenitzen mendea bukatzerako 2°C baino gehiago berotzearen ondorio ikaragarriak. Bi, ea nola eragotzi diezaiekegun planetako ikatz, gas eta petrolioaren jabe diren korporazio eta estatuei horien ustiatzeko aukera. Erregaiok lurpean utzi behar ditugu”.

Hasteko, egunkariaren diruak funts horietatik ateratzeaz gain Bill eta Melinda Gatesen fundazioari gauza bera egitera behartzeko sinadura bilketari ekin diote. ■



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

zuri begira





## TERMOMETROA

# Markel Olano eta Xabier Olano, oraingoz berdinketa

Nork eskuratuko du Gipuzkoako Diputazioa, Markel Olano EAJko hautagaiak edo Xabier Olano EH Bildukoak? Lehia gori-gori dago. Eztabaida ere bizia eta mamitsua izan da, halako kanpainari dagokiona. Tentsiorik ez da falta izan, baina batez ere eztabaidarako biek erakutsitako estilo ona da azpimarratu beharrekoa. [ARGIAko web telebistan ikusgai da.](#)

| XABIER LETONA |

Argazkiak: Dani Blanco

HASTEAREKIN BAT, Xabier Olanok (Altzo, 1959) adierazi dio Markel Olanori (Beasain, 1965) pozten dela azkenean aurrez aurre eztabaida dezaketelako, orain arte ez duela nahi izan eta.

Markelek erantzun dio jadanik eztabaidatu dutela beste hedabide batzuek [beste hautagaiekin batera] antolatutako saioetan. Hedabideetako eztabaidetara joan dela, baina alderdiek antolatutakoetara ez.

Guk gure esker ona adierazi diegu, lehen buruz burukoa ARGIAri eskaini izanagatik. Eta esan diegu abizenarekin nahastu egingo garela eztabaidan eta, euren baimenez, Markel eta Xabier izango direla debatean.

Markel aurreko legealdian izan zen Gipuzkoako Diputazioko ahal-dun nagusia eta berriz errepikatzea du helburu. Xabier Diputazioko Ogasuneko zuzendaria da orain eta diputatu nagusiaren aulkia lehiatuko

du. Bakoitzaren gizarte ereduaz jardun dute lehenbizi eta gero, gobernura iritsiz gero, ekonomia eta enpleguaren esparruan hartuko lituzketen hiruna neurri eskatu dizkiegu. Motorrak ondo berotu ondoren zerga politika eta hondakinen gaiak mahairatu ditugu, legealdiko korapilatsuenetakoak.

Nork irabazi du? Debateetan egiten den ohiko galdera da, baina honetan irakurleak edo ikus-entzu-

**“Permachek zera nahi du: ‘zu, mafioso, etorri nirekin erabaki eskubidea lantzeraz’. Norbaitek pentsatzen badu horrela zerbait egin litekeela desorekaren bat du”**

Markel Olano



Eztabaida Zumaiaiko Foronda Jauregian egin zen eta ordubete iraun zuen.

leak erabaki beharko du, guk behintzat ez baitugu batere argi. Lehia zorrotza izan da eta biek atera dituzte haien parrokiak asetzeko moduko eduki, jario eta estiloa.

**EAJ, PP eta PSEk zerga erreforma adostu zuten 2013ko amaieran eta Bildu aurka agertu zen. Xabier, zerga garrantzitsuenetan, zer tipo zehatzak behar dira eta zergatik?**

**Xabier:** Haiek kontraerreforma egin zuten, guk aurretik egindako erreforma zuzendu nahian. Bat, atzera pausoak eman ziren PFEZen eta kapital errenten tributazioan. Bi, sozietate zergan izugarritzko atzera-

pauso eman zen: Gipuzkoan, sozietateek batez beste %10eko zerga dute beraien irabaziengatik, eta irabazi handienak dituzten enpresa handiek are eta gutxiago oraindik, %1-%2. Edozein langilek, edozein pentsionistak bere irabazietatik %20-22-25 ordaintzen du hileror. Sozietateek huskeria ordaintzen dute beren irabazietatik eta guk uste dugu askoz gehiago ordaindu behar dutela.

Kontraerreformak Aberastasuna eta Fortuna Handien gaineko Zerga ere ezabatu nahi izan zuen, baina hor PSEk eutsi egin zion eta ez zuten lortu. Hau oso zerga aurrerakoa eta eredugarria da, Europa osoan erreferentziazkoa eta [Thomas] Piketty moduko adituek sostengatzen dituzte halako zergak.

**Markel:** PFEZ eta beste zerga batzuetan ez dago ia desberdintasunik EH Bildu eta gure arteko

## Erabakitze eskubidea: adostasunik ez elkarlanerako

Gure Esku Dagok bultzatuta kontsultak egingo dira Goierriko 22 herritan 2016an. Ekimena Gipuzkoako gainerako herrietara zabaltzeko beharko litzateke?

**Markel:** Ekimen hori era indartsuan egiteko hauteskundeak pasatu beharko dira eta gure arteko liskarra leundu beharko da. Une honetan ez dago baldintza objektiborik Euskal Herri osoan erabaki eskubidearen aldeko dinamikarik behar den bezala bultzatzeko. Tamalez, ezker abertzalearen eta EAJren arteko enfrentamendu politikoak ezinezko egiten du hori. Abertzale-tasunaren baitan dagoen lidergo lehia konpondu arte ez da posible izango; eta hilabeteak eta urteak beharko dira hori konpontzeko.

**Xabier:** Ez nator bat inondik inora. Gure arteko lehiak, hauteskunde borrokatxoek... ez dute nahiko garrantzi herri honen erabakitze eskubidea zalantzan jartzeko. Instituzioak erabili behar ditugu erabakitze eskubidearen alde, hori da lehentasuna. Herri hau epe luzera eraiki nahi badugu, oinarria erabakitze eskubidea da eta bitartean, lau urtetan agintean bat edo bestea egon, horrek ez du hainbeste garrantzirik.

Baina lehia honetan EAJ itsututa ikusten dut eta gauza guztien gainetik Gipuzkoako gobernua konkista-

tu nahi du eta horretarako prest dago edozer gauza egiteko: PSErekin ituna, PPrekin edo Ciudadanosekin. Hori oso epe motzeko ikuspegia da.

**Markel:** Nik erabaki eskubidearen alde egingo dut eta gure jendeak ere bai, baina ez dago baldintza objektiborik ezker abertzalearekin elkarlanean aritzeko, eta hori egiten ez den bitartean, herri honek jai dauka arlo honetan. Joseba Permach Azpeitiko Auzitegira badoa, han ustelak eta mafiosoak gairela esaten badu eta hurrengo minutuan erabaki eskubidearen aldeko elkarlana eskatzen badigu, horrek duen ahuldade politikoa beldurgarria da. Gure aurkako gorroto handia dago eta horregatik, herrietan normalizazio politikoaren aldeko dinamikak bultzatu behar dira.

**Xabier:** Ezin zaio inori eskatu horren izenean ustelkerien zantzuen aurrean bestaldera begiratzea. Bi bideak jorratu behar dira.

**Markel:** Baina Permachek zera nahi du: “Zu, mafioso, etorri nirekin erabaki eskubidea lantzeraz”. Norbaitek pentsatzen badu horrela zerbait egin litekeela desorekaren bat du.

**Xabier:** Xabier Olanorekin ari zara, ez Permacheekin.

**Markel:** Zure nagusia da hori...



## Eztabaida gori-gori Bidegiko zuloez

### AZPIEGITURAK

Zer falta zaio Gipuzkoari eta zer du soberan?

**Xabier:** Zorra du soberan. Bere garaian sekulako azpiegiturak egin ziren Gipuzkoan eta horren ondorioz Bidegik 900 milioi euroko zorpetzea du. Horietatik 400 milioi Bilduren Gobernu osatu aurretik hitzartu ziren, korrika eta presaka. Eta gainera, badirudi egin gabeko gastuak ordaindu zirela. Zantzuak ikusita, guk kereila aurkeztu dugu Azpeitiko Auzitegian eta hor ikusiko da ardura penalik badagoen edo ez. Gipuzkoako Batzar Nagusiek erabaki dute badirela ardura politikoak, eta arduradun politiko horietakoa Markel da.

**Markel:** Hori guztia hauteskunderi begira antolatu da. Bidegikoa, Kutxabank... Agenda iluna dago EAJren irudia zikintzeko. Batzar Nagusietan bi bertsio egon dira, foru gobernuarena eta gurea. Non dira lurrak?, galdetu zen eta horretan ibilitako teknikariek erantzun zuten lurrak obran zirela. Hortik aurrera Bilduk erabile- ra politikoa egiten du.

**Xabier:** Hauteskundeak izan ala ez, gipuzkoarrek jakin behar dute beraien 18 milioi zuzen erabili diren ala ez.

**Markel:** Guk erantzun genien zuek aurkeztutako frogei, baina ez dituzue jaso nahi izan. Susmoak direnean, lehenengo logikoena da joatea enpresa haiengana eta galdetzea, "zer gertatu da hemen?". Etorri dira, azaldu dute eta ez zaie kasurik egiten. Hor dago erabilera politikoa.



### GENEROA

2013an onartu zen berdintasun plana Batzar Nagusietan. Teoriatik praktikara: zein hiru neurri zehatz jarriko zenituzkete hurrengo legealdian?

**Xabier:** Bat, ema-

kumeen bizitza prekarizazioa gelditu eta baliabideak eskura izan ditzaten bermatu. Nola egiten da hori? Emakumeek lan egiten duten sektoreetan lan baldintzak hobetuz. Erresistentzietako langileekin hori egin genuen eta Adegik auzitegiara eraman gintuen.

Bi, zaintza eta etxeko lanen ekonomia egiten duen ekarpena ere aitortu behar da eta hor batez ere emakumeak ari dira.

Eta hiru, biolentzia matxistatik gabeko bizitzak bermatu behar dira, eta biolentzia hori jasaten duten emakumei gure laguntza, babesa eta gertutasun guztia eskainiko diegu, orain arte egin dugun bezalaxe.

**Markel:** Foru arau hori aho batez onartu zen eta guk gure egiten dugu. Egingo duguna:

Bat, foru arauan aurreikusten diren neurriak gauzatu.

Bi, generoaren gaia zehar-lerrokoa da eta hala hartu behar du foru gobernuak, euskararen gaian egiten den bezala.

Hiru, genero berdintasuna zenbakietara eraman behar da eta guk egiten dugu hori: hauteskunde zerrendetan esate baterako. Horrez gain, zenbakietatik arlo kualitatibora ere eraman behar da, ardura eta aginte postuetara. Hau indartzeko konpromisoa hartzen dugu.

### EUSKARA

Euskararen normalizaziorako egungo diskurtso eta jardunak goia jo duela aipatzen da hainbat gunetatik. Behar du euskararen normalizazioak beste ikuspegi bat eta bultzada berri bat?

**Markel:** Erabileraren esparruan hutsune handiak ditugu eta datorren legealdirako programa berezia jarriko dugu abian, batez ere gazteen esparruan. Erabilerarena



proposamenetan, aldeak kosmetikoak dira. Bildu ez zen oso anbi- zionsua izan bere proposamenetan, beste toki batzuekin alderatuta. Non dago koska? Sozietate zergan. Hor Bilduk orain arteko eskema guztia eraldatu nahi izan du. Sozietate zergaren helburu bakarra ez da dirua biltzea eta hori da Bilduren obsesioa eta irizpide soila. Sozietate zergak enpresa portaerak bideratu nahi ditu, ondo ari dena saritzea; hau da, enplegu gehien sortzen duenak izango ditu hobari edo kenkariak. Berdin inbertsioak egiten dituenak.

Aberastasuna eta fortuna handien zerga: Europan puntakoa dela diozue, ez da ba izango, Europan mota horretako zerga bakarra da eta! Zerga honen eskutik, enpresari batek bere dirua makinetan eta pabiloietan inbertitua badu, hori ondare pertsonaltzat jotzen da Gipuzkoan. Kasu bakarra da Europan eta horrek ez du bultzatzen apustu berriak egitera. Horrek ez dio mesede egiten justizia sozialari, horrek industriari egiten dio kalte.

**Xabier:** Ez nator bat. Aberastasunaren zerga gipuzkoarren %1ek bakarrik ordaintzen du, milioi 1etik

**"Astakeria hutsa da 2015ean Gipuzkoan errauskailu bat egin nahi izatea. Inork ez du halakorik nahi bere inguruan"**

Xabier Olano

gorako ondarea dutenek. Baina milioi 1-2 dutenek oso gutxi ordaintzen dute, izugarritzko aberastasuna dutenek ordaintzen dute dirutza,

da une honetan euskararen erronka nagusia, kalean eta familietan.

### Baina behar da diskurtso berri bat?

**Markel:** Bai, behar da, erabileraren urrats hori egiteko oinarritzko zutabeak ezarri behar direlako eta, seguruenik, berrezarri behar direlako. Adibidez, gaztetxoek kalean euskaraz hitz egiteko erregistro bat behar dute eta horretarako ezinbestekoa da ikus-entzunezko eta interneteko edukietan ere euskarak gero eta presentzia handiagoa izatea, batez ere aisialdiko edukietan. Tabakalera proiektuak protagonismo handia behar du eduki horien sorreran eta gure konpromisoa zera da: eraikina bukatu eta haren bihotza euskarazko ikus-entzunezko edukien sorkuntzan kokatzea.

**Xabier:** Bai, euskarak bultzada eta diskurtso berriak behar ditu. Ezagutza nahiko txukuna da Gipuzkoan, %60tik gora dago, baina erabilera kopuru horretatik oso urrun dago. Nola egin liteke hori? Euskarari prestigioa emanez, adibidez Gaizka Garitanok Almerian egin zuen bezala; hori egingo bagenu Gipuzkoako politikari, kirolari, kultur erreferentzi eta abarrek, euskararen erabilera askoz handiagoa litzateke. Neurri zehatzen esparruan, euskara ikasi nahi duten guztiei aukera hori doan eskainiko diegu. Gaur egun eskumen hori Jaurlaritzarena da, baina bermatzen ez duenez, guk egingo dugu.

**Markel:** Doakotasunak ekar dezake egin behar den ahaleginari garrantzi nahikoa ez ematea. Doakotasuna kasu berezietarako bai, baina orokortzea ez da egokia estrategia bezala.



eta gizarte justuago bat nahi badugu hori ezinbestekoa da.

EAJk sozietate zergan egin duena onartezina da. Bi adibide: bat, opor fiskalak jarri zituen eta Europak sekulako egurra eman digu, 50 milioi euroko isuna ordaindu behar izan dugu; bi, EPSak, beste sistema bat enpresak ezer ez ordaintzeko. Hori bada EAJren ekarpena ederki gaude.

**Markel:** Bi zerga horiek jarri ziren indarrean Gipuzkoa eta Euskal Herri osoaren industri arima arriskuan zirenean, 80 eta 90eko hamarkadetan. Ez egin demagogiarik

horrekin, bere garaian ezker abertzaleak sostengua eman zien eta.

**Xabier:** Gezurra da hori, ni Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkidea eta bozeramailea nintzen garai hartan eta ez da horrela.

**Markel:** Ondarearen zergan kalkulu bat egin dugu. Bi adibide: batean pertsona batek ondarearen %80 inbertitzen du bere enpresan eta %20 gelditu du; bestean alderantziz, %20 inbertitzen du eta %80 gelditu du. Zuen zerga berriarekin galtzaile ateratzen da diru gehien bere enpresan inbertitzen duena. A ze paradoxa, zerga batek kaltetzea

**Xabier:** Kuriosoa da, Gipuzkoan doakotasuna ez da estrategia egokia, baina Espainian gaztelania ikastea doakoa da, Frantzia frantsesa ikastea ere bai... eta Argentinan euskara ikastea doakoa da, Gipuzkoan ez.



### KUTXABANK

Espainiako Bankuak behartu ditzake Kutxabankeko fundazioak 700 milioi euro erreserbetara bideratzera. Ahalko dute? Kolokan da haien bideragarritasuna?

**Markel:** Hori ez da hipotesi nagusia. Seguruenik Kutxabankek bere banku funtzioarekin jarraituko du eta kutxek gizarte ekintzarekin jarraitu ahalko dute. Hori litzateke desiragarriena.

**Xabier:** Kontuz, Espainiako Bankuak halako kasuetan oso zorrotz jokatzeko du eta. Edozein kasutan, horretara jo gabe ere, guk umetan aurrezki kutxak oso gertukoak genituen eta poliki-poliki banku pribatu bihurtu dira. Gipuzkoak galdu du berea zen erakunde bat eta jadanik ez da finantza erakunde publiko bat. Batzuek utzi egin dute hori gertatzea eta gainera txalotu.

**Markel:** Ezker abertzaleak Kutxaren kontrola hartu nahi izan du eta hori ezin izan duenean estrategia zabal jarri du abian Kutxaren irudia zikintzeko.

**Xabier:** Ez dut kontrol politikoa nahi, kontrol publikoa baizik, izan dadila denona, garai batean bezala.

**Markel:** Guk bi proposamen egin ditugu Batzar Nagusietan: bat, fundazioko patronoak Batzar Nagusiek izendatzea. Bi, akzio kopuru bat saldu behar bazen, Foru Aldundiak erostea. Bi proposamenetan ezker abertzaleak ezezkoa eman zuen.

**MARCOS**  
okindegia

**Benetako  
aitzinako ogia**

© 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)





bere ondarea Gipuzkoako enpresa batean inbertitzen duena. Hori bai dela onartezina!

**Xabier.** Ez da horrela, baina ez nau harritzen Markelek hori esatea, diputatu nagusi zenean ondare zerga kendu egin zuelako...

**Markel.** Gainerako guztiek egin zuten bezala...

### **Markel, agintzen baduzue erraus- tegia egingo duzuela iragarri duzue. Zergatik?**

**Markel:** Gipuzkoan ezinbestekoa dugulako hondakinen zirkuitu guztia ixtea eta une honetan itxi gabe dugulako. Ezker abertzaleak eta Bilduk sekulako lardakeria egin dute bai Zubietan eta bai Zestoan, besteak beste horiek eraikitzeke baime-nik ez dutelako. Zestoako horrekin hondakinen estrategia osoa zaborte-gietan amaitzea litzateke eta Euro-pak ez du horrelakorik baimentzen.

Ahalegin handia egin behar da birziklatze eta konpostatzean, baina gelditzen den gainerakoarekin energia sortu behar da, Europako herrialde aurreratuenetan egiten den bezala, Alemanian, Danimarkan, Suedian... Atzeratuenek zaborte-gie-

tara jotzen dute eta aurreratuenek birziklatu eta erraustera.

**Xabier:** Astakeria hutsa da 2015ean Gipuzkoan errauskailu bat egin nahi izatea. Inork ez du halakorik nahi bere inguruan. PPK eta PSEk bultzatu zutenean ere ez Urnietako alkateak, ez Lasartekoak, ez Errenteriakoak, Donostiakoak... inork ez zuen berean nahi. Agindutakoa betez, guk gelditu egin genuen.

Horren ordez, birziklatzea lehen-tasunezkoa zen plana bultzatu dugu eta hondakinen %22 birziklatzetik %50era pasatu gara. Hori izugarri-zko ahalegina da eta Europak ere hala aitortzen du: 2013an inguru-men komisarioak, adibidez, eta aste honetan bertan Europako Inguru-men Bulegoko arduradunak. Azken honek esan du Gipuzkoa eredu-garria dela, ez bakarrik lortutako bir-ziklatze kopuruarengatik, baita ere errauskailu bat geldiarazteagatik.

Bizkaian 10 urte darama erraus-kailuak eta, hala ere, zaborte-gia behar da, errausak norabait bota behar dira eta. Artigaseko zaborte-gia ez da itxi, areago 2040ra arte luzatu zaio bizitza. Zuek errauskai-luarekin duzun grina hori bakarrik

uler liteke atzean diren interes eko-nomikoetatik.

**Markel:** Ezker abertzaleak beti aipatzen du interes ekonomiko-en kontu hori. Berak egiten dituen azpiegituretan ez, adibidez atez ate-koan, baina besteek beti dituzte. Aipatzen duzun %50 hori ez da bir-ziklatzea, bilketa selektiboa baizik.

**Xabier:** Europako errauskailuei buruz: azken bost urteetan ez da errauskailu bakarra egin eta Euro-pako zuzentzaileen arabera ezingo da birziklagarria den ezer erraustu. Zestoako Osinbeltzekoa zaborte-gi inerteza izango da.

**Markel:** Eguneratu zure diskur-tsoa, Iñaki Errazkinek dio inertiza-tu egingo direla, hondakin horien zati bat organikoa izango delako eta zaborte-gi horrek ere lizibatuen azpiegitura guztia beharko duelako.

**Xabier:** Errauskailutik datozen errausak toxikoagoak dira...

**Markel:** Hori beste eztabaida bat litzateke... ■



Mahai-inguruaren bideoa osorik ARGIAren multi-media atalean ikusgai



# AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99  
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com



# HERRITARROK *garaile!*

EMAN  
BOTOA

 **ehbildu**



Xabier Letona



DANI BLANCO

## Estatuaren biolentzia eta Jaurlearitza

**SEGIKOAK** izatea leporatu zaie Ibon Esteban, Xabat Moran, Marina Sagastizabal, Bergoi Madernaz, Igarki Robles, Ainhoa Villaverde eta Aiala Zaldibarrri. Horrexegatik 6 urteko espetxe zigorra jarri die Espainiako Auzitegi Nazionalak.

Har dezagun, bat hartzeagatik, Igarki Robles gaztearen kasua eta ikus dezagun zergatik zigortu duten, pegatina gora pegatina behera, beste 5 kasuak berdinak dira eta. Epaiaren 58-62 orrialdeetan deskribatzen dira bere maltzurkeriak. Epaiaren aurrean Roblesek ukatu egiten duen Segikoa dela, baina epaiak frogatutzat ematen du baietz. Zergatik?

Hiru froga nagusi aipatzen dira: a) Ainhoa Villaverdek hala esan zuen poliziaren aurrean, nahiz eta epaiaren aurrean ez zuen halakorik berrets. b) Ekoitz Arresek ere hala esan zuen, baina epaiaren aurrean tratatu txarrak salatu zituen. c) Roblesen etxean honakoak aurkitu ziren: Segiren firma eta anagrama duten hiru kamiseta eta lau sudadera; “Goazen independentzia eta sozialismora! Maiatzak 1 Gazteok kalera” leloa duen Segiko kartela; “Zuekin gaude. Gudari Eguna 2010” leloa daraman Segiko kartela; “Gazteok etorkizuna gure eskuetan hartuko dugu. Martxoaren 24an Borroka Eguna” leloa daraman Jarrairen pegatina; Lezon izandako Gazte Egunean parte-hartzeko pultsera; “Jarrairen 20 urte” pegatina; ETaren hiru pegatina; Segiko pegatina; Jarraiko pegatina; eta Batasunako euro leko bono bat.

Hori da guztia. Punto. Eta horrexegatik Igarki Roblesek sei urte igaro beharko ditu espetxean. 2000. hamarkadako Estatuaren

ilegalizazio sukarra ezagutu ez duen edozeini zerrenda arriskutsu horregatik norbaitek espetxean sei urte pasa dezakeela esanez gero “baina zoraturta zaude ala?”, esango luke inongo zalantzarik gabe. Halakoak estatu autoritario batean bakarrik gerta litezke, ETaren ondorena gorrotoa eta mendekutik bakarrik irudika dezakeen estatuan. Baina hori guztia ezaguna da eta, zoritzarrekoa bada ere, espero liteke.

*“Ez ekarri liorik, legea betetzeko dago eta Ertzaintza polizia integrala da” bakarrik erantzutea izugarri injustoa da*

Iazko udan Auzitegi Nazionaleko beste epaimahai batek ia kalkatuak diren arrazoiekin 40 gazte absolbitu zituen, gazteen tortura salaketak aintzat hartu zituelako, poliziaren aurrean bakarrik jasotako deklarazioak baliogabetuz. Orain, Auzitegi Nazionaleko Angela Murillo magistratu ezagunak gidatutako epaimahaiak, froga ia berdintsuekin 7 lagun espetxera bidaliko ditu sei urtez. Hau ere ezaguna da, inork ez daki Auzitegi Nazionala nondik aterako den, baina espero liteke.

Espero liteke baita ere PPko bozeramaileek zigorrak txalotzea. PSEren eledunek berdintsu jokatzea ere ulergarria da, azkenean, zigorren sustraia PPk eta PSOEek ereindako ilegalizazioa baitira.

Berdin uler liteke, aldiz, EAJ eta honek zuzentzen dituen instituzioetatik ere isiltasunarekin erantzutea eta zerbait esanez gero ahapeka jar-

dutea? Ez, hori ez da hain ulergarria, ez giza eskubideen urraketaren ikuspegitik ezta gatazkaren ondorioak konpontzeari begira ere.

**ETAREN** biolentzia bukatu zen, baina Estatuarena ez eta halako epaiak —egungo gainerako makro-azietako zigorrak bezala— biolentzia dira, zuzenbide estatuaren moztasunarekin emanak badira ere. Jaurlearitzak bakea hiru oinarri nagusiren ikuspegitik jorratzen du batez ere: bat, iraganeko biolentziak; bi, egungo harreman politikoaren normalizazioa eta bizikidetzatza; hiru, etorkizuneko hezkuntza eta bakearen kultura. Hirurak dira egokiak, logikoak eta sustatzeko modukoak.

Baina printzipio nagusietan hanka-motz dago, Estatuak egun praktikatzan duen biolentziari ez diolako behar adinako garrantzirik ematen, eta hor sar daitezke makroazuiak, presoen urrutze eta sakabanaketa edo, esaterako, presoen abokatuen aurkako polizia operazioak. Espainiako Justiziak eman izanagatik, epai hauek ez dute injustizia izaera galtzen eta Jaurlearitzak sinesgarritasuna nahi badu, beste tinkotasun batekin erantzun beharko lieke Angela Murilloren epaiarena modukoei.

Gizartearen zati garrantzitsua aktiboa da halakoen salaketan, zati txikiago bat ados da Estatuarekin eta gehiengo handi batek ez daki egiazki gertatzen dena. Halako epaiak behar den tinkotasunaz ez salatzeak ez die mesederik egiten ez konponbidetari ez bakearen kulturari.

“Ez ekarri liorik, legea betetzeko dago eta Ertzaintza polizia integrala da” bakarrik erantzutea izugarri injustoa da. ■

ASTE HONETAKO

# zozketa



Argiako harpidedunentzat

## [f]arina



### [F]arina Jatetxea

2 pertsonentzako  
afari bat

Urbina kalea, 5 · (Molinuevo Parkea)  
Vitoria-Gasteiz ARABA

[www.farinarestaurante.com](http://www.farinarestaurante.com)

1

## Inguru Abentura

1. Mailako eskalada jaitsiera

(1. maila)

4 lagunentzako bina saio

San Juan kalea, 18  
Albizur ARABA

[www.inguruabentura.com](http://www.inguruabentura.com)

2

## Artium

Arte Garaikideko  
Euskal Zentro-Museoa

3 lagunentzako  
bina sarrera

Frantzia, 24  
Gasteiz ARABA

[www.artium.org](http://www.artium.org)

3

## Jorge Oteiza Fundazio Museoa

3 lagunentzako  
bina sarrera

De la Cuesta, 7  
Alzuza NAFARROA

[www.museoteiza.org](http://www.museoteiza.org)

4

## Erlea gure sendagile



### Erlea gure sendagile

liburua

[www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda)

5

## AZKEN IRABAZLEAK (2459. Argia)

### ERDIBANA ANTZEZLANA

Joseba Landaluze Moraza (Gasteiz)  
Itziar García Blázquez (Oñati)  
Xabi Terreros Gartzia (Iruñea)  
Arantxa Irulegi Garmendia (Zumaia)

### INGURU ABENTURA

Asier Lizarriturri Martiarena (Aretxabaleta)  
Irati Lujua Etxenike (Etxalar)  
Aitor Altuna Etxabe (Hernani)  
Olatz Usabiaga Errazkin (Donostia)

### SAN TELMO

Ihintza Tellabide (Zaldibia)  
Marian Goikoetxea Garraida (Iruñea)  
Arkaitz Sodupe Intxausti (Segura)

### HISTORIA ARRAZA NAZIOA

Josune Arandia Belaustegi (Lemoa)  
Garbiñe Goikoetxea Etxaniz (Getaria)

### ILLIMANI

Sabina Arruabarrena Sukia (Donostia)

gunea

argia

## PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • [gunea@argia.eus](mailto:gunea@argia.eus)

[www.argia.eus/gunea](http://www.argia.eus/gunea)



\* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete



Harpidetza bakoitzarekin,  
are independenteago

ARGIAK eta EUSKAL HERRIAK

# mugarik ez

## Mugak sortzen dituen gastuak **gure gain** **hartu ditugu**

ARGIA n lurraldetasuna eta berdintasuna ditugu oinarri. Mugarik gabeko Euskal Herria dugu ipar eta horregatik, harpidetzen tarifak bateratzea erabaki dugu.

ARGIAren balioak praktikara ekarri eta estatuen korreo sistemek sortutako kostuen diferentziak gure gain hartu ditugu. Euskal Herriko herritar denek baldintza berak izan ditzagun.

Gure konpromisoaren koloreekin, Euskal Herria margotzen jarraitzea baitugu erronka.

**ARGIA astean behin jasotzeko aukera:**  
hilean 12 euro baino ez\*

**ARGIA hilean birritan jasotzeko aukera:**  
hilean 7 euro baino gutxiago \*\*

**ARGIA hilean behin jasotzeko aukera:**  
hilean 4 euro baino gutxiago \*\*\*

\*ARGIA astero: 145 euro urtean.  
Ordainketa urtean behin edo bi zatitan egiteko aukera.  
46 zenbaki + 11 Larrun eta Urtekaria.

\*\* ARGIA hilean birritan: 77 euro urtean.  
Ordainketa urtean behin. 22 zenbaki + 11 Larrun.

\*\*\* ARGIA hilean behin: 41 euro urtean.  
Ordainketa urtean behin. 11 zenbaki + 11 Larrun.

ESKAERAK

© 943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza

 **argia**